

**“AFRANZESATUA?
ERREPRESALIATUA? SARITUA?”
ANDOAIN NAPOLEONEN
OKUPAZIOAREN MENPE
(1808-1815)**

Carlos RILOVA JERICÓ
Koro TAPIA LIZARRAGA

Lan hau, iturri dokumental ezberdinak medio, Andoaingo Udal Artxiboa zein beste batzuk (Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Archivo General Militar de Segovia...), 1808-1814ko Espainiako inbasio napoleonikoaren ondorioz sortutako talde politikoan, normalean "afrancesatu" izenez deskribatu izan direnak, sar litezkeen pertsonak eta balizko andoaindar afrancesatu horiek paira ditzaketen ondorio politikoak, ekonomikoak... eta baita hauen eta okupatutako Espainiako ondo ezagututako eta ondo deskribatutako beste kasu batzuen arteko ezberdintasunak ere argitzen saiatuko da .

Afrancesatua, inbasio napoleonikoa, XIX, mendea, Andoain.

El presente trabajo trata de esclarecer a través de diversas fuentes documentales, tanto del Archivo Municipal de Andoain como de otros (Archivo General de Gipuzkoa, Archivo General Militar de Segovia...) la presencia de figuras en Andoain que pudieran encajar en el grupo político surgido a consecuencia de la invasión napoleónica en España (1808-1814) y habitualmente descrito como "afrancesado", así como las consecuencias políticas, económicas... acarreadas a esos posibles afrancesados andoaindarras, y sus diferencias con respecto a casos bien conocidos y descritos en otras partes de la España ocupada.

Afrancesado, invasión napoleónica, siglo XIX, Andoain.

This work tries to elucidate through different documentary sources (Andoain Town Archives, General Archive of Gipuzkoa, Military General Archive of Segovia...) the existence in Andoain of individuals that could form part of the political bunch usually known as the "afrancesados" -supporters of Napoleon's brother Joseph as spanisk king- during the french occupation of Spain (1808-1814). The work tries to elucidate as well which consequences -political, economical...- were suffered by these hypothetical "afrancesados" from Andoain and the differences between these case studies and others well known and studied in other parts of the occupied Spain.

Afrancesado, french ocupation, 19th century, Andoain.

ESKEMA

1. SARRERA. "TRAIDORE OSPETSU"AK ETA ANDOAIN.

- 1.1. 1789ko iraultza eta bere ondorioak Andoainen. Konbentzioko Gerratik Independentzia Gerrara (1793-1808).
- 1.2. 1793ko iraultzaren lehenengo ondorioak Andoainen. Non bilatu afranzasatuak?

2. OKUPAZIO NAPOLEONIKOAREN LEHENENGO FASEA (1808-1812).

3. OKUPAZIO NAPOLEONIKOAREN BIGARREN FASEA (1812-1813).

4. GERRA ETA BAKEAREN ONDORIOAK (1813-1815).

- 4.1. Andoaingo eliz-ondasunak eta okupazio napoleonikoa.
- 4.2. Andoaingo ondasun zibilak eta napoleonikoaren okupazioa.
- 4.3. Ikuspegi politiko nahasi eta asaldua.

5. ONDORIOAK.

- 5.1. Soldadu antinapoleoniko baten eklipsea. Jose de Arana andoaindarra Gipuzkoako bolondresen lehenengo batailoiko ofiziala.
- 5.2. Soldadu antinapoleoniko baten eklipsea. Juan Jose de Ugartemendia andoaindarra Gipuzkoako bolondresen lehenengo batailoiko komandante nagusia.
- 5.3. Istorio baten ostarteak. Pedro Manuel de Ugartemendia eta okupazio napoleonikoa.
- 5.4. Ondorioen ordua. Martin Jose de Ameztoy-ren istorio deserosoa. Balizko afranzasatu bat andoaindar "patrioten" babesle.

6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.

- 6.1. Iturri dokumentalak.
- 6.2. Inprimatutako iturriak.
- 6.3. Bibliografia.

1. SARRERA. "TRAIDORE OSPETSU"AK ETA ANDOAIN.

Historian ezer ez da sortzen aurrekari argirik gabe. Ezta "afranzesatuak" deitutakoak ere. Afranzesatuak 1789ko Iraultzaren ondorio dira; horrek, era berean, "gerra iraultzaileak" eragin zituen eta horiek, era berean, Napoleon, bere inperioa eta "gerra napoleonikoak" sortarazi zituzten, eta hor, bide historiko horren bukaeran, afranzesatuak daude.

1792an hasitako eta espainiar koroarentzat 1795eko Basileako Bakearekin bukatutako gerra "iraultzaileek", kontinente osoari ematen ari zen erabateko aldaketaren lehenengo abisuaren berri eman zitoten.

1.1. 1789ko iraultza eta bere ondorioak Andoainen. Konbentzio Gerratik Independentzia Gerrara (1793- 1808).

Une horretan, alegia, 1792az geroztik, erlijio gerra berria hasia da; Europan ia ahazturik den zerbait, 1648an Westfaliako Bakea sinatu zenetik. Bada, 1792tik aurrera, Antonio Elorza irakasleak "erlijio politiko" gisa izendatzen duenaren aldeko borroka da hasiko dena. Alegia, batetik, iraultzaileen eta bestetik, Absolutismoaren aldeko direnen uste politikoaren arteko gatazka litzateke, nolabait. Absolutismoaren aldekoen artean badira batzuk XVIII. mendearen aurreko garaietara itzuli nahi dutenak. Badira ere beren artean, 1789ko iraultzak astinduta, "Argien mendea" deitutakora iritsi nahi dutenak, alegia, "Despotismo argitua" izendatutako garaira. Hau da, europar monarkiak berrezartzera, non garai horretako errege eta printzeek, Ilustrazioaren aurrerapenen jarraitzaileek, uste baitzuten Herria zoriontsu egin zitekeela, baina Herri horren beraren iritzirik kontuan izan gabe. Hala, oso homogeenak diren gizarteak, halakoak baitziren XVIII. mendeko europar monarkiak, zatikatzen joko dute nabarmen, oraingoan uste eta iritzi politikoak medio¹.

¹ Ikus ELORZA, Antonio: *La religión política: el "nacionalismo sabiniano" y otros ensayos sobre nacionalismo e integritismo*, R&B, Donostia-San Sebastián, 1995.

Andoain, beste gipuzkoar herri asko bezalaxe, Europan lehenetariko herrialdea izango da jaiotzearen denugar politiko horren gaineko berriak jasotzen, non, denborak aurrera egin ahala, sortuko baitira “afranzesatuak” deituak izan diren horiek, eta baita beren ezker zein eskuineko aurkari politikoak ere. Andoaingo herrian, gainera, afranzesatuen aurkako bi taldeak oso ondo ordezkaturik daude.

Izan ere, afranzesatuen “ezker” aldean -Miguel Artolak bere egunean erabili zuen zatiketa erabiltzearen- XIX. mende hasierako Andoainean Pedro Manuel de Ugartemendia ingeniari militar eta arkitektoa bezalako pertsona ospetsuak topatzen ditugu, liberal nabarmena, lan honen bukaerako atalean ikusiko dugun moduan².

Afranzesatuen “eskuin” aldean berriz, XIX. mende hasierako Andoainean iritzi politiko horren beste etsai prototipoa topatzen dugu: Juan Bautista de Erro erreakzionarioa, Fernando VII.aren gobernu absolutistetan goi-kargudun izandakoa, bere egunak, paradoxikoki, Jose I erregea onartu zuten guztiak 1814tik aurrera babestu zituen Baionako hirian bertan eman zituena.

“Afranzesatu” horiek dira, hasiera batean, euren eskura izan dituzten baliabide guztiekin borrokatu dituztenak.

Honenbestez, Juan Bautista de Erro, 1789ko urtetik aurrera Europa osoan zehar hasi zen borrokaren erabateko erredua, adibide bizia da. Hau da, iraultzaileak -edo liberalak-, erreakzionarioak -edo absolutistak-, eta, bien erdian, afranzesatuak sortuko diren garai hartako adibide izan zen gizona.

Errok ez du, une bakar batean ere, zalantzarik izango noren alde egin behar duen 1808ko maiatzaz geroztik.

Bere biografo guztiak -Manuel de Lecuona, Bernardo Estornés Lasa, Fausto Arocena...- bat datoz behin Baionako abdikazioen konplotaz jabetuta, eta gerora Independentzia Gerra izenaz ezagutuko dena hasita, Juan Bautista de Erro oso arin lerrotzekin dela Defentsako Batzarrekin, adieraztean. Defentsa Batzar horiek, afranzesatuen aurkako muturrean baitaude, ez dute aintzat hartu ere egin nahi Jose Bonaparte Madrilgo tronoan errege jartzeko inposaketa onartzeko aukera, eta bost urte luzeko gerra odoltsuan eragotziko dute³.

Errok, izan ere, batzar horietako baten presidentzia kargua beteko du, Mantxakoa, eta britaniar eta portugaldar armadarekin batera, Napoleoni Penintsulan aurre egiten dion espainiar armadan intendente izango da. Bere itzuleran Fernando VIII, antzeko

2 “Ezker/eskuin” zatiketa horren gainean afranzesatuen etsai politikoak kokatzeko, zeinak “erdiko” aukera politikotzat hartuak izan diren, ikus ARTOLA, Miguel: *Los francesados*. Alianza, Madrid, 1989, 32.. or.

3 1808-1814 denboraldiari Independentzia-gerra izena ezartzearen gainean, ikus ÁLVAREZ JUNCO, José: *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*, Taurus, Madrid, 2002, 119-129.. or.

idea absolutistak baitituzte, bere zerbitzuan sendotu egingo du, Madrilen eta Bartze-lonan intendente izendatuz. Bertan 1817 eta 1820 urte bitartean arituko da, azken hori iraultzaile liberalek boterea eskuratuko duten urtea baita. Sasoi berri honetan normala da, afinitate ideologikoak medio, Juan Bautista de Erro ezkutatzea, harik eta 1823ko kontraeraso absolutistak irabazi zuen arte. Kontraeraso absolutista horren gertaeran parte hartuko du, lehendabizi behin-behineko Gobernuaren kide izanik eta, ondoren, Estatu Kontseilari eta Ogasun Bulegoko idazkari modura⁴.

Horrek ez du saihestuko, halere, Fernando VII.aren errestituzio absolutistaren hurrengo urtean Juan Bautista de Erro erregearen konfidantza galtzea, zeinak 1824an Cadizen bizitzera zigortuko baitu, gerora zigor hori aldatu eta Granadara bidaliz, azkenik, Valladolidera egozteko. San Fernandoko Akademian ohorezko akademiko izendatzeak ez du galaraziko, gainera, Valladoliden atxilotua izatea, lehenengo bere etxean bertan, ondoren atxilo-eremua hiri osora zabalduz. 1825. urtean erregeak barkatu egingo du -neurri batean behintzat- inbasio napoleonikoa hasiz geroztik erregea hain itsu zerbitzatu duen absolutista amorratu hau. Data horretan baimena emango zaio Gipuzkoara joateko, Zestoako bainuetxera, hain zuzen ere⁵.

Baliteke bere jarrera proabsolutistaren izate foruzaleegian, edo protokarlistan, nahiago bada, 1789an hasitako gerra eta iraultza prozesutik datorren jarrera politikoa, hain zuzen ere, Juan Bautista de Erroren gainbehera politikoa jatorria izatea. Jarrera horrek orduko Euskal Herrian hainbat liskar eta asaldura eragin zituen, jada zenbait ikerketa obretan deskribaturikoak, Jose Ignacio Tellechea Idigorasenean kasu, gaia aztertzen duenean⁶.

Afinitate politiko horrek, afranzesatuaren eskuinaren eskuinean, eragina izango du Juan Bautista de Erroren bizitzan, erbeste-



Juan Bautista Erro.

4 Ikus LECUONA, Manuel de, *Lecuona Manuel de Idaz-lan guztiak*, Kardaberaz Bilduma 27, 6. alea, Librería técnica de difusión, Tolosa, 1983, 507-527.. or. eta ESTORNES LASA, Bernardo: "Juan Bautista de Erro y Azpiroz", <http://www.euskomedia.org/aunamendi/40595>. "Trienio"aren gertaeren gainean bere lerro nagusietarako, ikus ARTOLA GALLEGU, Miguel: *La España de Fernando VII*, Espasa-Calpe, Madrid, 1986, 89-307. or. Bere ondorioarako Gipuzkoako lurraldean LLANOS ARAMBURU, Félix: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa (1820-1823). Antecedentes de las Guerras Carlistas en el País Vasco*, Universidad de Deusto, San Sebastián, 1998.

5 AROCENA ARROQUI, Fausto: *Juan Bautista de Erro y Azpiroz 1773-1854*, Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1954, foliatu gabeko orriak.

6 AROCENA ARROQUI, Fausto: *Op. cit.*, foliatu gabeko orriak eta TELLECHEA IDIGORAS, José Ignacio: "Nacionales y realistas: un episodio donostiarra (1827)". *BEHSS*, 18, 1984, 39-114. or.

ra eramana, Ingalaterrara hain zuzen ere, 1833an. Erbeste horretatik 1836ra arte ez da itzuliko, liberal eta karlisten arteko gerra zibilaren hirugarren urtean. Fernando VII.aren anaiak, On Carlosek, urte horretako apirilaren 20ko dekretuz, bere gobernu ultra-absolutistaren Ministro Unibertsal izendatu baitzuen⁷.

Osozunean hartuta, Juan Bautista de Erroren bizitzak, Baionan behin betiko erbesteraturik amaituak, iraultzaren berotan sortutako alderdi guztiei aurka jarriak -afranzesatu, liberal zein absolutisteki- ederki asko laburbiltzen du, proiektzio historiko handiko andoaindar baten bizitza abiapuntua izanik, Andoainen afranzesatuen ustezko agertzea -edo erabateko desagertzea- zein unibertso konplexu motaren baitan ulertu behar dugun.

Eszenatoki nahasia non, dagoeneko Santa Elenako uhartean behin betiko erbesteraturik zegoen Napoleonen esanetan, espainiar liberalak ere "Ehun egunak" deiturikoetan zehar azkenik laguntza eske izango zituzkeen gustora -ehun egun izan ziren Elbatik itzuli eta Waterloo, 1815eko ekainean, Napoleonek dena behin betikoz galdu bitartekoak- enperadoreak ironikoki Fernando VII.aren "tirania" deitzen duenarekin amaitzeko. Aukera horrek liberalak Frantzia erbesteraturiko afranzesatuen parean jarriko zituzkeen, bai behintzat, Elbatik bueltan, Napoleonen alde egiten duten haien parean⁸.

Aniztasun politiko hori guztia -afranzesatuena barne, noski- sortuko duen mundu horri buruz Andoainera iritsi ziren lehen berriak frantziar Konbentzioaren gudaroste geldiezinak ekarri zituzten 1794an, Gipuzkoako zati bat bere menpe hartu zutenean. Eta, hain zuzen ere, aniztasun politiko horrek guztiak astinduko du Euskal Herria XIX. gizaldian zehar, eta giro horretan kulunkatuko dira, Pedro Manuel de Ugartemendiarena, edo are gehiago, Juan Bautista de Errorenarena bezalako biografia konplexuak⁹.

Frantziarren inbasioak berehala Andoaingo ondasun material zein espiritualei bete-betean eragin zien, zuzeneko hainbat ekintzaren bidez. Hori ondoriozta dezakegu 1797ko data duten gutunetan, non jakinarazten zaigun Hernaniko herriko auzo batek,

7 AROCENA ARROQUI, F., *Op. cit.*, foliatu gabeko orriak.

8 AROCENA ARROQUI, F.: *Op. cit.*, foliatu gabeko orriak. Espainiar liberal batzuen laguntza-eskaeri buruzko Napoleonen baieztapenen gainean, ikus LAS CASES, *Mémorial de Sainte-Hélène*, Éditions Garnier Frères, Paris, tome I, 394-395. or. "Ehun egun" horietan afranzesatu errefuxiatuek Napoleoni ematen dioten babes ezberdinaren gainean, ikus LÓPEZ TABAR, Juan: *Los famosos traidores. Los afrancesados durante la crisis del Antiguo Régimen (1808-1833)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2001, 128-131. or.

9 Konbentzio-Gerraren inpaktu nabarmenaren gainean, ikus MUTILOA POZA, José María: *La crisis de Guipúzcoa*, CAP, San Sebastián, 1978, GOÑI GALARRAGA, Joseba: "La revolución francesa en el País Vasco: la guerra de la Convención", ZZ. AA.-tan: *Historia del Pueblo Vasco*, Erein, 1979, volumen 3. 5-69 orr. eta oraindik orain, ZZ.AA., *Azterketa historikoak-Estudios históricos IV*, Zumalakarregi Museoa-Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia-San Sebastián, 1997. Ikus ere VILAR, Pierre: *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*, Crítica, Barcelona, 1982, 169-210 orr. non alderatu egiten diren 1793ko inbasio iraultzailea Katalunia eta Euskal Herria eta 1808-1814ko inbasio napoleonikoa, eta gizarte horren gaineko bere ondorioa, afranzesaturik barne.

Joseph de Lecuona izenekoak, 1794tik 1795era bitarteko okupazioan zehar, frantziar errepublikaren herri-ordezkarri gisa, exijitu zuela Andoaingo eliza parrokiaren zilar guztia, eta zilar horren bila mota orotako bitartekoak erabiliz ahaleginduko da gizona, eta ahalegin horrek garbi samar adierazten digu zein zuzeneko ondorio eta eragina izan zuten gerra iraultzaileek -Napoleonen gerren atarikoek- Andoaingo herriaren gain.

Hala, dokumentu horren arabera, Lecuona, konbentzionalek eliz kabildoa eta Andoaingo zenbait udal kargodun Baionara deportatu zituztela baliaturik, frantziar soldaduak lagun elizan bertaratzen da. Bisitaldi horrek ez baitu nahi bezalako emaitzik ematen, Lecuonak ibaiaren zonaldea miatzeko agindua emango du, bertan parrokiaren zilarra topatze aldera; izan ere, berau zonalde horretan arduraz gordea izan delako ustea du, nonbait¹⁰.

Lecuonak zilar preziatu horren bilaketa lanetan, heriotza mehatxupean zenbait auzo ontziratzeke agindua emango du. Ibaia zundatzeko pertikak erabiliko ditu; hartara, metodo hau dela bide, ezkutatutako zilarra topatuko zutela uste zuen. Lecuonaren aginduak argiak ziren: lagun zituen soldaduek baionetak fusiletan jarriko zituzten eta egiteko hori betetzen ez zutenen kontra baliatuko¹¹.

Lecuonak estutasun horretan, jaso duen iraultza kausaren zerbitzari leiala eta argia dela erakutsiko du; eta, ondorioz, Andoaingo herrian buru jarriko dute, ia bi urtez herria Konbentzio frantziarraren gudarosteek ekarritako ideia iraultzaileetatik hurbil ziharduen udal gobernu baten menpe egon baitzen.

Izan ere, Konbentzioak beharrezkoa du aipatu zilar estimatua, hala, inguruan -hasi Espainiatik eta gaur egungo Alemaniara arte- dituen armada ugariei aurre egin diezaien. Ditzosozko zilarra ageri ez dela ikusita, dokumentuak diosku Lecuonak galdetzen duela ea Andoainen baden errementaririk... Behin badela ziurtatzen duenean, burnizko kako batzuk egin ditzala exijituko dio. Behin lantzen dizkiotenean, ibaira bueltatuko da eta baionetez zulatuak izateko soldadu iraultzaileen mehatxupean diren ontziratutako auzo-marinelek kako hauek euren pertiketako puntetan jarriko dituzte¹².

Hainbeste saiatzeak, burua hainbeste eragiteak bere emaitza izango du: dokumentuak dio makilak, bere kako eta guzti, pasatzerakoan, Andoaingo parrokia-elizaren lanpara nagusia "arrantzatuko" dela (bere osotasunean zilarrez urtua, jakina), segidan Hernanira eramana izango dena¹³.

10 Andoaingo Udal Artxiboa (hemendik aurrera A.U.A.) LH/116, fol. 69 zuzen.

11 A.U.A., LH/116, fol. 69 zuzen. Konfiskatze iraultzaile mota honen gainean interesgarria gerta daiteke alderatzea data beretsuetan Andoaingo kasua eta Donostia eta Pasaiaiko portuko kasuak, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: "¿De una revolución a otra? San Sebastián en 1789 y en 2011", *BEHSS*, nº 44, 2011, 506-507. or.

12 A.U.A., LH/116, fol. 69 zuzen.

13 A.U.A., LH/116, fol. 69 zuzen.

Agiriak ez digu gehiegi argitzen zein izan zen irrikatutako zilar horren norakoa. Mendean hartutako Gipuzkoan tropa konbentzionalak zilar preziatuaren bilaketa lanetan oso gogotsu arituko dira; zalantzarik gabe bide emateko, honenbestez, frantziar errepublika gaztearen erretorikak arrakastaz darabilen “tiranoen kontrako gerra” horri. Gerra horrek, Lecuonaren adibidea kasu, Europa osoan gero eta jarraitzaile gehiago izatea ahalbideratzen du. Agiri horri esker bakarrik dakigu Lecuona salatua izango dela frantziar errepublika eta Espainiaren erreinuaren arteko bakea sinatzen denean, 1795ean, eta eskatuko zaio lanpara nagusi horrekin gertatutakoaren berri emateko, *affairea* Valladolideko Chancilleriako epaitegiraino eramanez, Lecuonak uko egiten baitio gipuzkoar korrejidoreak emandako lehen epaia onartzeari¹⁴.

Honetatik guztiatik, haatik, Andoainen ustezko afranzasatuak izatearen gaineko lan honen gairako guztiz interesgarria den xehetasun bat ateratzen da; bide batez, jakin ahal dugu 1813az geroztik zeintzuk izan ziren euren kontra hartutako errepresaliak: Andoaingo herriak abokatu bati kontsulta egiten dio jakiteko Lecuonari nola erreklamatu lanpararen konfiskatzea; horretarako, ez du kontuan hartuko ea Lekuona kristau txarra izana den edo ez, ezta ea frantziar Konbentzio iraultzaileak aginduta, Astigarragako elizaren zilarra ere lapurtu duen.

Andoaingo gobernarien kezka bakarra da une horietan, 1705. urtean -Frantziako Errepublikaren hirugarrena, errepublika *bat eta banaezina* erretorika iraultzailearen arabera- ea Lecuonak objektu preziatu hori frantziar Errepublikaren komisionatu gisa edo frogatzen zailagoa den beste arrazoi batengatik eraman ote zuen¹⁵.



Frantziako txanpon iraultzaile bat (1793). C. R. J. bilduma.

Europa jasaten ari den konbultsio politikoak bere eragina izango du lehen aldiz Andoainen. Hala, egite eta errealtate materialak -parrokia jakin bateko zilarraz jabetzea, esaterako- militantzia politiko jakin baten aurrean garrantzi gutxiagokoak diren iritzi erlijiosoak baino inportanteagoak izaten hasten dira. Frantziar Errepublikaren komisionatua izatea edo ez izatea, esaterako. Garai horretan berebiziko garrantzia izatera pasatzen den frantziar ideia iraultzaileen aldeko nahiz kontrako militantzia politikoaren xehetasun honek, marraztu egingo du, hartara

14 A.U.A., LH/116, fol. 69 zuzen.

15 A.U.A., LH/116, fol. 70 zuzen.

-Andoaini dagokionean- ikuspegi historiko berria, non gerora "afranzesatuak" izenez ezagutuko direnak sortuko diren. Hau da, 1814an Fray Manuel Martinezek sinatutako panfleto politikoaren izenburuak aipatzen zituen traidore ospetsuak, zeinak barkamenik gabe kondenatuak izan behar diren 1808an Jose I aren alde egin izanagatik¹⁶.

Hau guztia, Andoaini dagokionean, beste dokumentu batzuetan islatzen da, jakina. Izan ere, bere udal artxibategian posible da aurkitzea Lecuonak debozio handiz zerbitzatuko duen armada iraultzailea dela eta, herri horretako antolaketa erlijioso tradizionalak gutxi sofritzen duela erakusten duteneko aztarna argiak.

Hala, adibidez, Santísimo Errosarioko Kofradiak, beste hainbat instituzio "gotiko"en antzera frantziar iraultzaren tropek onartua (dagoena), bere 1796ko liburuan bakarrik azpimarratzen du okupazio garaian zehar -1794 eta 1795 artean- ezin izan zuela aukeratu, ohikoa zenaren kontra, etxezain berririk, akta horiek izendatzen duten "frantziar Armadaren inbasioa Lurralde honetan" dela kausa¹⁷.

Hala eta guztiz ere, ikuspegi politiko berri honetako aktore guztiek ez dute iritzi bera izango tradizio katoliko eta armada iraultzailearen arteko elkarbitzita lasai horren gainean edo lapurreta sakrilegoen aurreko axolagabetasunaren gainean.

Hain zuzen ere, Andoain gidatzen duen goreneko botereak -1808ko inbasioak azkenean garaituko duen azkenetan den Carlos IVaren monarkiako goi mailak- beste-lako iritzia du.

Halaxe da, eta gainera, hain zuzen ere, euskal afranzesatu nabarmenetako batek, alegia, Mariano Luis de Urquijok, ardura hartuko du Andoaini informatzeko erlijioa oraindik gai politiko garrantzitsutzat hartua izan behar zela. Garai horretan -1799ko urteaz ari gara- Carlos IV erregearen gortean zerbitzari prestua dugu. Carlos IV erregeak, alabaina, frantziar iraultzaile atoen eta errege-hiltzaileen auziarekin guztiz bat egiten du.

16 A.U.A., LH/116, fol. 69 zuzen. "Traidore ospetsuak" adierazpenaren eta bere jatorriaren gainean, ikus LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 17 orr.

17 A.U.A., LH/120, 1796ko kontuak, foliatu gabeko orriak. Andoainen kofradien gainean eta beren egiteko soziala XVII eta XX. mendearen artean, ikus RODRÍGUEZ PÉREZ, Ana Isabel: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 45-146. or. Tradizio katoliko mota horri soldadu iraultzaileek dioten errespetuak harridura sortuko du 1794 eta 1795 urteen artean mendearen hartutako beste hainbat herrialde gipuzkoarretan. Oiarzunen, esaterako, non horietako zenbait soldadu elizkizunetara begirunez joaten ikusten den, haatik. Honen gainean ikus CRUZ MUNDET, José Ramón (ed.): *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795): I. V. Sarastiren eskuizkribua-La Guerra de la Convención en Gipuzkoa (1793-1795): el manuscrito de I. V. de Sarasti*, Koldo Mitxelena kulturunea-Gipuzkoako Foru Aldundia- Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 1993, 102. or. Beste herrialde gipuzkoarretan tropa iraultzaile horien agertzearen talkaren gainean, Lezoko kasua interesgarria gerta daiteke RILOVA JERICÓ, Carlos: *Askatasunaren arbola. Lezo Historia Garaikidean (1793-1876)-El árbol de la Libertad. Lezo en la Historia Contemporánea (1793-1876)*, Lezoko Unibertsitateko Udala, Lezo, 2005, 22-41 eta 12-30. or. Penintsulan frantziar iraultzaren inpaktu orokorraren gainean, ikus MANIQUIS, Robert M.-MARTÍ, Oscar R.-PÉREZ, Joseph: *La revolución francesa y el mundo ibérico*, Turner, Madrid, 1989 eta AYMES, Jean René (ed.), *España y la revolución francesa*, Crítica, Barcelona, 1989. Interesgarria izan daiteke ere FAJARDO, José Manuel: *La epopeya de los locos. Españoles en la revolución francesa*, Ediciones B, Barcelona, 1992.

Mariano Luis de Urkijok 1800eko otsailaren 1ean esku-izkribu bat bidaliko dio, dagoeneko iraultza-gerrak eta bere ondorio ideologikoak zer diren badakien Andoaini, aginduz Pereyra eta Cestari bi elizgizon obren itzulpenak ezin direla argitaratu, ez baita-toz bat Jesukristok -dokumentuan "J.C." gisa ageri dena- zenbait eliza-agintariei buruz, nahiz erresumako bake politikolari komeni zaionari buruz esandakoarekin¹⁸.

Hiru dokumentu horien bidez ikusi ahal dugu 1793tik 1808ko inbasio napoleonikora arte politikaren gainean Andoainen garai honetan nola dauden gauzak. Izan ere, afranzesatuak agertuko dira, bai komunitate horretan, bai okupazio napoleonikoaren menpe diren beste hainbatetan ere.

Alde batetik, topo egin dugu frantziar errepublikarren jarraitzaile batek egindako lapurretekin. Hau da, arrazoi horrengatik izango dira zigortuak, ez "lapurreta sakrilegoak" izateagatik, 1789a baino lehen mundu horretan gertatzen zen bezala.

Bestetik, 1808ko inbasioaz geroztik, afranzesatuen etorkizuneko buruzagiak izango direnek erlijioa, katolikoa sikiera, zeina Espainiako monarkiaren boterearen zerbitzura dagoen, errespetatua izan behar duelako abisu eta oharpenak ematen dituzte.

Eta azkenik, ikusi dugu, era berean, frantziar soldadu iraultzaileekin batera elkarrekin bakean bizi diren Andoaingo auzoak, euren kontra borrokatuko direla 1793tik 1795era bitarteko aurrez aurreko gerran, Santísimo Rosarioko Kofradiako liburuan ondorioztatzen den bezala.

Prozesu beliko horretan inplikaturik daude Andoaingo Udaleko zenbait auzo-kargodun, Juan Bautista de Belderrain, esaterako. Bera Andoaingo Udal gobernuan izan zen 1793 -Frantziar Konbentzioaren kontrako gerra hasieraren urtea- eta 1815 urteen artean.

Pertsona hauek 1793an gipuzkoar bolondresei arropak, -zamarrek eta kapelak, adibidez-, oinetakoak, dirua -bakoitzari erreal bat eguneko-, eta armak emango dizkiete. Era berean, Europan politika mailan 1789ko uztailaren 14ko Frantziar Iraultzaren ondoren zer gertatu den ikasiko dute, iraultza horretako jarraitzaile ospetsuenen zerrendak osatuz, 1791 urteko urriaren 12an erregeak agindutakoa, adibidez. Hau guztia, 1815ean

18 A.U.A., LH/116, foliatu gabeko orriak eta 1etik 21era bitartean arkatzez markaturiko orriak. Politika afranzesatuarekin ezin hobeki koherentea den jarrera, López Tabarrek gogorarazten digun bezala, zeinak, (politika afranzesatuak, alegia) leiala zaion kleroa bere indar guztiz erabiliko baitu, arrazoi batengatik edo besteagatik Jose laren kontra altzarazita dagoen herrialdearen otzantasuna lortzeko. Ikus LÓPEZ TABAR, J., *Op. cit.*, 42-46. or. Beste aldetik, bere garaian gaiaren aditu nagusiek adierazi zuten bezala, ideologia afranzesatua, kontserbadorea da, batik bat, eta honenbestez, erlijioaren afera euskarri erabilgarritzat jotzen du erlijioaren afera eta estatuak izatea bere zaintza "Erregalismo" deitua izan denaren barruan, dokumentu honetan ezin hobeki islatua. Honi buruz ikus ARTOLA, M., *Op. cit.*, 31-57. or., non Urquijoren pentsamendu erlijiosoa aztertzen duen. 1808a baino lehenagoko dokumentu honetan ikusten dugun antzera, pentsamendu hori laburbiltzen da erlijioaren erabilera eskatzera erregearen boterea indartzeko.

berrito errege absoluto bati obeditzearen aldean, ia urte oso bat erregimen konstituzionalpean eman eta gero¹⁹.

Eta, hain zuzen ere, Frantziako Iraultzak sorturiko etsai horren aurka indar handiz egingo da borroka, Juan Bautista de Zabalak 1793ko uztailaren 6an bidaltzen duen gutunean ikusten den bezala. Gutun horrek dio Konbentzioko tropek galera handiak jasan dituztela Irunen, Andoain bezalako herriek bidalitako tropak direla eta²⁰.

Horiek bezalako talka armatuek geroago kalteak eragingo dituzte Gipuzkoako zenbait herritan. Konbentzioak kaltetu nahi ez dituen herriak, baina Andoaini gertatzen zaion bezala, Frantziar Errepublikari asko erreklamatu beharko diote Basileako Bakea sinatu eta gero; egiaz 1815 arte bukatzen ez diren gerrate horiek akabatuko dituen bakea.

Adibidez, okupazioak irauten duen bitartean, Frantziar Iraultza tropek asko kalte-tuko dute Andoaingo Udaleko eraikuntza; 1807an herri honetako Udalari bidalitako dokumentu batzuen arabera, tropa horiek Andoainen Latineko Katedra ematen zeneko etxea ere suntsituko dute.

Inbasio napoleonikoa zehazten ari den urte horretan bertan, Portugal aldera jotzen du tropa aliatu gisa, Britania Handiaren aurkako "Blokeo Kontinental" gauzatzeko. Andoainek, bataila ikaragarriei esker, Frantzia napoleonikoaren aliantza pisutsu eta deseroso hori ezaguna zuen, 1805eko urriaren 21koa bezalakoxea. Orduan Espartelgo kabuaren izenez ezagututako Trafalgarreko bataila, esaterako. Andoaingo Udalak jaso zuen bataila horren galeren gaineko dokumentu bat: sei espainiar untzi, bost britainiarren aldean, non ziren ez zekiten galdutako beste hamaika, 3.000 hildako eta 5.000 zauritutakorekin batera²¹.

Andoaingo ustezko afranzesatuak, bere historia eta honen ondorioak gerra, iraultza, nahasmen giro horretan hasi behar gara bilatzen.

19 A.U.A., LH/116, fol. 112 zuzen-114 zuzen, 119 zuzen, 130 zuzen-131 zuzen eta 133 zuzen. Okupazio ondorengo udaletan Belderrainen azaltzearen gainean, kontsultatu A.U.A., L/H 60, foliatu gabeko orriak.

20 A.U.A., LH/116, fol. 134 zuzen-135 zuzen.

21 A.U.A., LH/116, fol. 144 zuzen, 222 zuzen y 224 zuzen. Bataila horren duela gutxiko osotasuneko ikusterako, ikus GUIMERÁ, Agustín-RAMOS, Alberto-BUTRÓN, Gonzalo (coords.): *Trafalgar y el mundo atlántico*, Marcial Pons, Madrid, 2004. Espainiar flotaren gaineko egiazko inpaktua normalean hartua izan dena baino askoz txikiagoa izango da. Horren gainean ikus GELLA ITURRIAGA, Joseren: *La Real Armada de 1808*, Real Academia de la Historia, Madrid, 1974, dokumentatutako azterlana, zeinak berretsiko litzuzkeen dokumentu honek emandako galeren neurrizko zifrak.

1.2. 1793ko iraultzaren lehenengo ondorioak Andoainen. Non bilatu afranzesatuak?

Ez da erraza 1789ko iraultza giro nahastutik sortutako Andoaingo afranzesatuen bilaketa. Lehenik eta behin, egiazko afranzesatu bat identifikatzea ez delako erraza. Gaian adituak diren guztiak horretan bat datoz. Afranzesatuena ez da hain talde homogeenoa, 1808tik aurrera uste izan den bezala. Oso zaila da afranzesatu zehatzak topatzea, Euskal Herriko kasuak diren Jose de Astigarraga eta Luis de Astigarraga bere ilobaren antzekoak, esaterako; 1812an Zegamako ordezkariak zirenak²².

Bigarrenik, Andoaingo afranzesatuak aurkitzea zaila da, zeren eta afranzesamendu kasu gehienak, Gipuzkoan, Azpeitian eta Tolosan ematen dira. Azterketa honen ezaugarrien arabera, herri hauetako lehena ez zaigu interesatzen. Tolosa, ordea, bai. Andoaindik gertu izateagatik eta baita 1808 eta 1813 urteen artean bi herrien arteko desadostasun politikoengatik ere.

Hala da, Gerra napoleonikoak bete-betean Gipuzkoa lurraldean 1808ko bukaeran eta 1809ko hasieran iritsi izanak, bi herri hauen arteko bat ez egitea areagotu egiten du. Andoain XVII. mendean Tolosako jauntasun-jurisdizionalaren banatzeetik datorren desadostasun bat²³.

Tolosak garrantzi handia du Napoleonen menpeko Gipuzkoan penintsula menperatzeko ibilbide inperial nagusian primerako leku estrategikoa delako. Horri esker, Tolosak lortzen du beste gipuzkoar herrialdeen aldean, Andoain kasu, "herri nagusitzat" hartua izatea, 1615ean gertatzen zen bezalaxe.

Hala da, Hernani eta Tolosa arteko bide horretan -zeinak tropak Europa Iparreko frontetik Napoleonek bere Memoretan "Espainiako gerra madarikatua" deitzen duenera eramatea ahalbideratzen duen- funtsezko zatia zaintzen duen guarnizioa dago. Bai, Tolosa, 1813ko atzera-egitean ikusten den bezala, leku zehatz bakarra da, Pancorbo eta Donostia artean, inperial tropak eraginkortasunez defenda daitezen, Tolosako gotortzei esker²⁴.

22 Ikus ARTOLA, M.: *Op. cit.*, 38-39. or., JURETSCHKE, H.: *Op. cit.*, 7-15. or. eta LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 19. or. José de Astigarraga eta Luis de Astigarragaren kasurako, beren zenbait idazlanetan Napoleonen irudia goraiatzeko inongo erreparurik ez dutenak, talde horri ez dagokion jarrera arraroa azalduz, berez Napoleonen aldekoa baino Jose laren aldekoagoa, behin eta berriz gaian adituak diren guztiek azpimarratzen duten bezalaxe, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: "Patria defendida a sangre y fuego. Cómo los vascos descubrieron que eran españoles (1808-1823)", *Hispania Nova*, 3, 2003, online errekurtsua.

23 Andoain Tolosako agente jurisdikzionaletik banatzeagatik bi herrien arteko bat ez etortze horien gainean, ikus TRUCHUELO GARCÍA, Susana: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*, Gipuzkoako Foru Aldundia- Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 1997.

24 Ibilbide horri buruz, ikus SÁNCHEZ ARRESEIGOR, Juan José: *Vascos contra Napoleón*, Actas. Madrid, 2010, 199-200 eta 203-209. or. Napoleonen horren gaineko hitzei buruz LAS CASES, *Op. cit.*, tome 1, 609, 794, 815. or. eta tome 2, 41. or.

Tolosan, Napoleonen menpe dagoen zonalde horretan, -Andoain ere hortxe da- agertzen dira afranzesatu gehienak, bolondresak direnak eta ez direnak.

Gipuzkoan Afranzesamenduaren kausaz ematen diren auzi ezberdinen artean, zaila da Andoaingo auzoren batekin zerikusia duena bat bera ere topatzea.

Hori dela eta, Andoaingo "traidore ospetsuen" bilaketa, ezinbestean, Tolosan hasten da. Hor aurkituko ditugun afranzesatuek esango digute zer egiten duten, zer botere zuten Napoleonentzat hain garrantzitsua zen gipuzkoar zati horretan.

Tolosan, giza maila baxuenetik hasita, kasu ezberdinak azaltzen dira. Esate baterako Francisco Toro komandantearena, zeinak Tolosako kale Nagusiko 108 zenbakiko lehenengo solairuan bizi diren bi auzo salatuko dituen. Salatzeko arrazoia sortzen zituzten etengabeko istiluak ziren, eta horietako istilu batek Francisco Torori berari eragin zion²⁵.

Auzi horretan ondorioztatuko da arotz batekin ezkondua zegoen Baztango Maiako Magdalena de Loyarte dela errudunetako bat²⁶.

Magdalenak istilu horietako batean Ignacia deituriko emakume bati -auzian ez da bere abizena agertzen- leporatzen dio frantziar soldaduekin harremanak izatea eta horren ondorioz, bere sabelean zeraman haurra komunetik behera botatzea²⁷.

Santiago Montel, Magdalena de Loyarte eta bere etsaiekin alderatuta, goragoko giza mailan dagoena, afranzesatutzat hartua izan den beste Tolosako auzoa izango litzateke.

Santiago Montelen aurkako auzia -hau ez zen normalena izaten- oso motza zen. Ez zituen ezta hamar folio ere.

Hori dela eta, eskasa da dokumentu horrek eman diezagukeen informazioa. Halere, afranzesatu horien aurka egindako errepresaliak, Frantzian 1944ean egiten direnen aldean, ez direla hain gogorrak azaltzen du. Afranzesamenduaren gaineko beste hainbat lanek gorabehera berezi honen berri ere eman digute. Lan horietan esaten zaigu afranzesatu asko 1813az geroztik penintsulan geratzen direla inongo arazorik, eragozpenik gabe. Afranzesatu hauek Santiago Montel bera baino hobeto daude, izan ere, bera epaitua izango da, susmo horiek direla eta²⁸.

25 Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Archivo General de Gipuzkoa (hemendik aurrera GAO-AGG) CO CRI 1814, 3 kaxa, 2 espedienteak, 1814ko maiatzaren 4ko gutuna, foliatu gabeko orriak.

26 GAO-AGG CO CRI 1814, 3 kaxa, 2 espedienteak, Magdalena de Loyarteren adierazpena, foliatu gabeko orriak.

27 GAO-AGG CO CRI 1814, 3 kaxa, 2 espedienteak, Margarita Torresen testigantza, foliatu gabeko orriak.

28 Ikus, LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 19. or. Afranzesatuen, afranzesatuen senideak barne, kontrako errepresio sistematikoari buruz, ikus ARTOLA, M.: *Op. cit.*, 215-234. or. Interesgarria izan daiteke alderatzea Espainiako egoera errestituzio borbonikoaren ondoren Frantzian gertatzen denarekin. Horri buruz, ikus POLLITZER, Marcel: *Sous la Terreur Blanche*, Aubanel, Paris, 1967. Bigarren Mundu- Gerran zehar okupazio naziaren eta napoleonikoaren arteko paralelismo batentzat, Historiografian oso ohikoa ez dena, frantziarrean batik bat, ikus LAURENT, Jacques-VARENNE, Alberic: *Quand la France occupait l'Europe*, Librairie Académique Perrin, Paris, 1979.

Dena den, Napoleonen okupazioaren laguntzaile izatearen Montelen aurkako errepresaliak, nahiko eskasak dira. Auzian, hirugarren folioan, esaten zaigu Montel, beste afranzesatu susmagarrien antzera, espetxeratu izan zela. Bere kasuan agindua emana dago Tolosan 1813ko azaroaren 20an. Hala eta guztiz ere, urtebete geroago ez da bere kontra ezer egin. Gainera, Frantziara ihes egin du, fidantzapean askatua izan zela aprobetxatuz²⁹.

Gorabehera ulergaitza, jakinda Montel Gipuzkoan armaz ezarritako Napoleonen gobernuko Posta-ofiziala izan zela³⁰.

Ulertezina da, era berean, Montelek berak bere alde egindako testigantzak bera akusatzen zutenena baino indar gehiago izatea³¹.

Montel ez da errepresaliatua izango den zonaldeko afranzesatu bakarra, ezta pentsatu ere. Tolosan eta Tolosaldean, badira beste batzuk, zeinak, armada aliatuek ekarritako autoritateek epaituko dituzten.

Halaxe, 1813ko urte horretan epaitegietara emandako beste auzi batek Montelen antzeko beste kasua azaltzen digu.

Epaitua Juan Antonio Dugiols da. Bitxia da Dugiols familia, Tolosako inportanteenetako bat; gerora, XIX. mendeko bukaera aldera, bere kideetako batek Espainiako banderaren alde borroka egin zuen Filipinasetako kanpainean³².

Juan Antonio Dugiolssek berak eskatzen dio epaileari galdeketa egitea, erakutsi ahal izateko ez dagoela arrazoirik Tolosako "**Cárceles Nacionales**" deiturikoetan egoteko³³.

Auzi hori dela eta, ez dakigu kasu honi buruzko gauza handirik; Jose Vicente de Egañaren alegatuek diotena baino ez. Egañak azaltzen du Dugiolsen aurkako lekukoek deklaratu egin dutela zer esaten zuten jakin gabe, Dugiolsi leporatuz egiak ez diren okupante napoleonikoen aldeko iritzi eta ekintzak. Horren bidez, Egañak Dugiolsi baimena ematea

29 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 3 espedientea, fol. 3 zuzen eta 6 zuzen-6 atzekaldea.

30 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 3 espedientea, fol. 8 atzekaldea eta 9 zuzen.

31 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 3 espedientea, fol. 9 atzekaldea-10 zuzen. Afranzesatuen artean ohikoa da afera "politikoetan" nahastu gabe lanbide politiko bat egitera mugatu izanaren aitzakia. Bereziki Artolak "juramentados" deitzen dituen artean. Alegia, okupaziora ahalik eta hobekien bizirautea mugatzen direnak, inongo bi bandoekin konpromezurik hartu gabe. Ikus ARTOLA, M.: *Op. cit.*, 38-39. or.

32 Teniente coronel graduaz 1898ko espainiar-iparramerikar Gerran borrokatzen duen Dugiols horren ganean, Felipe, eta auzo bati ere aurre egin beharko dio ustez frontetik ihes egiteagatik, libratua izango dena bere aldeko proba ugariengatik, ikus ARZAC ALBERDI, Antonio: "Dugiols", *Euskal-Erria*, tomo 40, 1899, 136-142. or., ROIG DE LLUIS, Luis: "Felipe Dugiols. Su defensa", *Euskal-Erria*, tomo 42, 1900, 272-277 eta 294-300. or., eta LÓPEZ-ALEN, Francisco: "Inauguración de la estatua de Dugiols", *Euskal-Erria*, tomo 45, 1901, 244-248. or. Era berean, bada Dugiolsen monumentu baten kokapenarekin zerikusia duen bertso-papera bat. Ikus IRAOLA, Victoriano: "Felipe Dugiols-ri bere talluntzaren lenengo arriya ipintzerakuan", 1901.

33 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 6 espedientea, fol. 1 zuzen.

egiaztatuko du, Tolosatik oinez ordu erdi batera zeuden bere etxera eta Belauntzako fabrikara bueltatzeko. Era berean, Egañak gaineratzen du han bere beharra zuten emaztea eta bost seme-alabak zirela. Epailak argudio hauek onartuko ditu eta Dugiols baldintzapeko askatasunean, sikiera, espexetik ateratzeko aginduko du³⁴.

Izan ere, berari buruz daukagun hurrengo albistea 1814ko irailean datatutako beste auzi bat da, non bertan leporatzen zaion gauza bakarra da, gaur egun "delitu ekologiko"tzat hartuko genukeena. Hau da: bere kobre-lantegiak ibaira hondakinak bota zituela, hartara, amuarra in eta beste hainbat arrain pozoinduz eta hilaz³⁵.

Oso bitxia da nola Montel edo Dugiols bezalako pertsonaiak leporatzen zaizkien afranzesamendu akusazio horietatik libratzen diren. Batez ere kontuan izanda Dugiols eta Pedro Manuel de Ugartemendiaren arteko harremana. Ugartemendia, andoaindarra, teoriar afranzesatuaren kontrako alderdiaren kide nabarmena da Gipuzkoan... itxurazko kontraesan honi buruz berriro lan honen bukaeran hitz egingo dugu.

Hori bezain inportantea da Tolosako beste hainbat auzoren kasua. Auzo hauek zailtasun gehiago izango dute inbasore napoleonikoekin dituzten harremanei eta hemendik ateratzen dituzten onurei buruzko euren errugabetasuna frogatzeko.

29 urteko mutilzarra den Antonio Urrutiaren maisu errementariaren kontra egiten den auzia, esaterako. Auzi horretan Tolosako beste auzoek leporatzen diote Tolosako frantziar komandanteari esan izana, ihes egindako zenbait espainiar preso San Franciscoko elizan gordeta zeudela³⁶.

Lehen begirada batean, auzi horrek ez du gauza handirik aipatzen bere kontra hartutako errepresalien gainean³⁷.

Hain zuzen ere, auziaren biktimarik nagusiena Bartolome Otegui da, Tolosako auzoa, 32 urteko zorigaiztoko burnigintzako langilea, mailukaria, Martina Iburgurekin ezkondu-ta dagoena eta analfabetoa...³⁸

34 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 6 espedientea, fol. 6 zuzen-7 zuzen. Egañari buruz, garai hartako Gipuzkoako jurista inportanteenetako bat, interesgarria gerta daiteke AYERBE IRIBAR, María Rosa, *Ensayo sobre la naturaleza y trascendencia de la legislación foral de las provincias vascongadas de Julián Egaña. El autor y su obra (1786-1864)*, Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 1996 eta GARMENDIA AMUTXASTEGI, Gotzon: "Cuando los aires de San Sebastián hacían liberales a sus habitantes: contribución de Julián de Egaña (1786-1864) en la formación del fuerismo liberal", *BEHSS*, nº 41, 2007, 229-414. or.

35 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 4 espedientea.

36 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 7 espedientea, fol. 3 zuzen-3 atzekaldea.

37 Auziaren epailea Juan Pablo de Arizpe da, gaur egun ospetsua dena 1813ko abuztuaren 31an Donostian tropa aliatuek egindako txikizioen epailea ere izateagatik, honi buruz ikus MURUGARREN, Luis: *1813 San Sebastián incendiada por británicos y portugueses*, Instituto de historia donostiarrá dr. Camino, Donostia-San Sebastián, 1993.

38 Auzi honetako lekuko batzuek zorigaizto izenondoa ezartzen diote, auziaren gastuak ordaintzeko dirurik ez duela erakusteko, nahiz eta Arizpek kobratu nahi zizkion. GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 7 espedientea, fol. 6 zuzen eta 25 zuzen-26 zuzen.

Arizpek Otegui eginarazten dion bigarren aitormenean ondorioztatzen du Urrutiak, erreguka ari zaizkion espainiar presoak ematen dizkiola frantziar komandanteari. Urrutiak hala jokutzen du, ez frantziar soldaduei beldur zielako, baizik eta beren alde ez zuelako ezer egin nahi...³⁹

Otegui, bere prokuradoreak dioen bezala, ezin izan zuen ezer egin hau galeraztearren, bere lana Urrutiaren menpe baitzen. Azken finean, Urrutia maisu errementaria zen eta Otegui, ostera, mailukaria baino ez. Arrazoi hori dela bide, Arizpe epaileak Oteguiren kondena arindu egingo du: Urrutia babestu dueneko perjurioaz kondenatzen du. Emandako zigorra bi hilabetekoa da; ondorioz; suntsitutako Donostian derrigorrez lan egitera behartua izango da. Hala ere, zigor hori heriotz zigor bilaka zitekeen, hirian orduan ziren baldintza gogorrak medio⁴⁰.

Otegui Andoaindik pasatuz joango da Donostiara, eta hemendik gertu, Iruran, birrindutako hirira daraman agoazilari adierazpen interesgarriak egingo dizkio. Esaten duena da, Andoaindik gertu zigorra merezi duten egiazko afranzasatuak daudela. Batik bat Ameztoty deitura duen persona bat salatuko du. Pedro Manuel de Ugartemendiarekin gertatu bezala, lan honen amaieran hitz egingo dugu berataz⁴¹.

Andoaindik gertu diren ustezko afranzasatu horiei buruzko Oteguiren hitzak ez datoz bat Korregimenduaren dokumentazioak diotenarekin.

Hala da, dokumentu horietan agertzen den Andoainek ez du inolako begikotasunik erakusten Jose laren gobernuarekiko. Dokumentu horietan agertzen diren gehienak inbasore napoleonikoen kontra borrokatu dira. Beren kontrako akusazioek etsaiekiko lankidetasunarekin ez dute batere zerikusirik.

Lehen begirada batean horixe da agertzen dena Miguel de Errazquinen kontra 1814ko abuztuan egindako auzi batean. Miguel de Errazquin Jauregiren batailoietan bolondres izandakoa da. Orain, 1814an, gerra napoleonikoen beste hainbat soldaduren antzera, bidelapurra da. Edo ala dirudi...⁴²

Andoaini buruz eman dezakeen informazio bakarra da, Independentzia gerra deiturikoan egin zuenaz galdetzen zaionean, 1814ko uztailaren 25etik aurrera han, Andoainen, bere amari Alegian bisita egiteko izan zela. Horretarako, bere maisua den José Francisco Martínezen -Ataungo maisu errementaria- baimena zuen⁴³.

39 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 7 espedientea, fol. 6 atzekaldea-7 zuzen eta 8 atzekaldea-9 zuzen.

40 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 7 espedientea, fol. 16 zuzen-18 zuzen.

41 GAO-AGG CO CRI 1813, 2 kaxa, 7 espedientea, fol. 13 zuzen eta 23 zuzen.

42 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea.

43 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea, fol. 3 atzekaldea-4 zuzen.

Miguel de Errazquinek gogoratzen duena da Andoainen bakarrik topo egin zuela Napoleonen kontra egindako jendearekin.

Andoaingo Postetako maisuarekin, adibidez, edota Jose de Aranarekin. Arana, andoindarra, Jauregiren batailoietan ofiziala zen eta Miguel de Errazquin bere laguntzailea. Izan ere, Errazquinek esaten du Andoaindik pasatzen dela bere buruzagia izandako etxetik alkondara eta txalekoa jasotzeko bakarrik⁴⁴.

Dokumentu honetan Errazquin 1810ean "Guerrilla de Guipúzcoa"n sartu izanaz oso harro agertzen da eta baita "don José de Arana oficial hijo de Andoain"en laguntzaile izateaz ere Jauregiren lehenengo batailoian⁴⁵.

Honek guztiak erakusten digu afranzesatuak bilatu nahi izanez gero, Tolosan bilatu beharko genituzkeela, ez Andoainen.

Orduan, Andoainen afranzesatuak aurkitzea helburu duen edozein ikerketa bukatutzat eman beharko genuke?

Honetatik guztietatik, beraz, Andoaingo okupazio napoleonikoaren irudi soila baino ez genuke ondorioztatu behar? Alegia, etsaiekiko laguntzaileak bakarrik Hernani eta Tolosan direla eta Andoainen, berriz, Napoleonen eta afranzesatuaren kontra egiten duen jendea. Eskuinean, Juan Bautista de Erro, adibidez, eta ezker aldean, Pedro Manuel de Ugartemendia eta Jose de Arana?

Lan honen hurrengo ataletan ikusiko dugu nola Bartolome de Oteguik ulertarazi nahi zuen gauzak ez direla ez hain sinpleak, ezta errazak ere. Hala da, Korregimenduko zein beste dokumentuek erakutsiko digute Andoain nahastutako mundu horretatik sortzen diren traidore ospetsuen, afranzesatuaren, adibide bikaina dela. Afranzesatuak edo beren eskuineko nahiz ezkerreko aurkariak: Juan Bautista de Erro, Pedro Manuel de Ugartemendia, Jose de Arana... Hauei buruz hitz egingo dugu lan honen amaieran, Andoaingo beste auzo batzuen kasuak aztertu eta gero, zeinetan, ikusiko dugun Andoainen bazirela afranzesatuak. Miguel de Errazquinen auzia irakurritakoan imajinatu ere egingo ez genukeena...

2. OKUPAZIO NAPOLEONIKOAREN LEHENENGO FASEA (1808-1812).

Dokumentu iturri eskasak ditugu Andoaingo bost urteetako okupazio napoleonikoaren berri osatzeko. Hori dela eta, agiri gutxi horietatik gai honi buruzko ondorioak atera beharrean gara, batik bat.

44 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea.

45 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea, fol. 4 atzekaldea.

Hala eta guztiz ere, laburrak baina oso argiak diren dokumentu batzuek, ondorio oso zehatzak eskaintzen dizkigute. 1808 eta 1814an Andoainen jasotako Udal kontuak, esaterako.

Hala da, dokumentu horrek Andoainen okupazioa nola izan zen eta bertatik zeintzuk atera zuten etekina azaltzen digu.

Argi dago Udalak, herriko interesen ordezkari gisa, ez zuela atera.

Kontu horietan Andoainen, beste hainbat herrialdetan bezala, 1808an, 1794koa baino gogor eta bortitzagoa den astindu bat hasi dela garbi azaltzen da.

Hain zuzen ere, labor bano oparoak diren kontu horietan ikusten da gauza harata-go doala; izan ere, 1794an Udaletxeari eragindako kalteak medio, nahiz elizaren lanpara nagusiaren lapurreta medio, Napoleon sortuko den gerra iraultzaileen gaineko lehenengo albisteak iristen dira Andoainera.

Orain, ordea, 1808 eta 1814 urteen artean, Andoaingo Udalak herriko lur dexente saldu behar ditu dirua lortu ahal izateko. Prozesu hau 1814an baino ez da etengo, okupazio napoleonikoa bukatu eta gero⁴⁶.

Udal kontuek argi azaltzen dute Andoaingo egoera ekonomikoa, okupazio napoleonikoak eta honek eragiten duen gerra medio. Nahikoa da kontu horiek eskaintzen duten datu bakar bat ikustea. Horren adibidea da Andoainen 1808tik 1813ra bitartean, guarnizio napoleonikoak, Udaletxea hartzen duela eta trukean ez duela ezer ordaintzen. Horixe bera egin zuten portugaldar eta espainiar armadek ere 1813ko udatik aurrera, Udaletxe bera hartu zutenean kaserna gisa⁴⁷.

46 A.U.A., C 2 103 H/3. Gerraren garapen orokorraren ikuspegi batentzat erreferentziatzeko obra oraindik izaten darrai, bere izaera zehatz eta monumentalagatik, GÓMEZ DE ARTECHE, José: *Guerra de la Independencia: historia militar de España de 1808 a 1814*. Imprenta del asilo de huérfanos, 1868-1903, Madrid. Bertsio laburragoetarako baina eguneratuagoak, ikus ESDAILE Charles: *La guerra de la Independencia*, Crítica, Barcelona, 2004. Berrikiago DE DIEGO, Emilio: *España, el infierno de Napoleón. 1808-1814. Una Historia de la Guerra de la Independencia*, La esfera de los libros, Madrid, 2008 eta MIRANDA RUBIO, Francisco (coord.): *Guerra, sociedad y política (1808-1814)*, UPNA-Gobierno de Navarra, Pamplona, 2008, tokiko kasu ezberdinei buruzko -Málaga, Gijón...- azterketa zenbait jasotzen dituen, interesgarriak suerta daitezkeenak Andoainekin konparatzeko. Ikus ere GATES, David: *La ulcera española. Historia de la Guerra de la Independencia*, Cátedra, Madrid, 1987. Liburu hori Historia militar baten antzera planteatuta dago eta baita Gómez de Artecheren bezalako obra klasikoen informazioa berritzeko eta eskuragarriago izateko ere. Euskal-Herriko egoera belikoaren xehetasunetarako horien antzeko azterketa orokorrak falta dira. Hala eta guztiz ere, badaude Bizkaian eta Gipuzkoan gertatutako gehiena berreraikitzea ahalbideratzen duten zenbait obra. Honi buruz interesgarria gerta daiteke, Bizkaiko kasuarentzat, Z.Z.AA.: *Bidebarrieta*, nº 20, 2009. Gipuzkoako kasuan Gaspar de Jaureguien biografia, Lasa aitak idatzia, gertakari horien gaineko obrarik onena da gaur egun oraindik ere. Ikus LASA ESNAOLA, Fr. José Ignacio: *Jauregui el guerrillero (un pastor guipuzcoano que llegó a mariscal)*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973, 63-218. or.

Andoaingo egoera, kasu berean dauden Gipuzkoako beste herritakoekin konparatzeko, interesgarria gerta daiteke "Bayoneta" proiektuaren materiala, Tolosako Udaleko web orrialdean kontsulta daitekeena <http://www.tolosakoudala.net>.

47 A.U.A., C 2 103 H/3, fol. 9 zuzen.

Udal kontu horietan ere ikusten dugu badirela andoiandar lurralde-jabe asko udal lur horien salmentaz etekina ateratzen dutenak. Lurralde horiek, ia zalantzarik gabe, salduak behar dute izan Andoaingo Udalak okupazio napoleonikoaren galerak ordainitzeko. Honek guztiak Andoainen ustezko afranzesatuen kopurua handitzea eragiten du. Hauetako batzuek, gainera, balio handiko udal lurrak erosiko dituzte.

Hauetako batzuen izenak egiaz deigarriak dira. Francisco Angel de Ychaso Asu-ren kasua, esaterako; berak 1810eko ekainaren 26an 55000 errealetako balioa duten udal lur eta erainkuntzak erosten ditu. Olaberriako burdinola da, bere martinete, olagizonaren etxea eta inguruko lurrak eta guzti. Salerosgo hori, dudarik gabe, tropa napoleonikoen gastuak ordaintzeko egiten da, Tolosako artxiboan utzitako salmenta eskritura batean ikusten den moduan. Andoaingo Udala behartua dago hori egitera, inbasore napoleonikoen menpean duten Gipuzkoako Gobernu Zibilak behin eta berriro derrigortzen duelako⁴⁸.

Hain salatzailea den zerrenda honetan Ychaso Asuren izena agertzea inportantea da, 1813ko udan aliatuek inbasio napoleonikoarekin Andoainen akabatzen dutenean, berak udal karguak izango dituelako herri honetan. Lurra horien erosketek ez dute bilakatu Tolosan aurreko atalean ikusi dugun afranzesatu bat, eta dokumentuek ez digute azaltzen zergatik gertatzen den hori. Hau guztia are eta harrigarriagoa da, baldin eta kontuan izaten badugu 1815ean Ychaso Asuk Andoaingo Udalean kargua duela, Carlos de Larramendik, Sebastian de Yguerateguik eta Sebastian de Mendizabalek bezalaxe. Hiru hauek, hurrenez hurren, kide eta lehendakari izan ziren Andoaingo Udal Kontseiluan. Erakunde hau 1808az geroztik, inbasore napoleonikoen tresna izan zen, okupatutako udalak menpean hartzeko. Beraz, afranzesatutako instituzio bat...⁴⁹.

Inbasore napoleonikoari eusteko lurrak erosi dituztenenganako errepresalia falta hori nahiko logikoa da. Bestela, 1813 eta 1814an afranzesatutzat, edo juramentatutzat, hartuak izan beharko lirateke beste hainbat udal lur-erosle ere. Hori izango litzateke esaterako, 474 errealean truke sorta bat erosiko duen Diego de Lizarribarren kasua, Maria Baupista de Espondaren kasua ere izango litzateke, Lizarteguiko lugorrian 247 lur postura erosi zituena 372 errealetan... Kasu hauek guztiak zerrenda luze bateko adibideak dira, non erosleek inoiz ere ez duten ordainduko 3.000 erreale baino gehiago erositako lurrengatik. Arau horren salbuespen gutxi dago. Hauek dira: Sebastian de Mendizabalek, Larrabideko alderdian 907 postura erosi zituen 3.630 errealetan, Francisco Ygnacio Ubillosek Pardaquin 837 postura eta erdiko lugorri bat erosten du 3.362 errealetan eta Galardiko 1.111 posturatako garondoa 3.894 errealetan, Josefa Antonia de Zataraynek, 1561 posturatako lursaila Areizagako garondoa erosten du 4.684 errealetan eta Lagrazuko alderdian 433 posturatako lugorria 3.254 errealetan, Jose Lasartek,

48 A.U.A., C 2 103 H /3, fol. 2 atzekaldea eta A.U.A., 11H/2, foliatu gabeko orriak.

49 Ychaso Asuren kargu politikoei buruz, kontsultatu A.U.A., L/H 60, foliatu gabeko orriak eta A.U.A., 11H/2, foliatu gabeko orriak.

Balzuneko alderdian 731 posturatako lugorria 4.204 errealetan eta Manuel Belaunzaran Elizondok, Urtondoazpiako alderdian 761 udal lur postura 5.331 errealetan⁵⁰.

Udal lur horien erosle handi guztiek, Francisco Angel de Ychaso Asu edo Sebastián de Mendizabalek bezalaxe, udal karguak izango dituzte 1815ean. Urte horretan Fernando VII, jada, Valencaytik itzuli da, gogor itzuli ere, eta sistema absolutista ezarri du. Horrek ez die galerazten 1823an, sistema konstituzionala defenditzeko 1820an osatua izan zen Milizia Nazionaleko zerrendan egotea. Eta hau guztia, udal lur horiek erostera behartuak izateko aitzakiarik gabe, 1810ean Donostiako merkatariei gertatu izan zitzaizenaren antzera...⁵¹

Kontuan hartu beharreko zerbait; izan ere, honek Andoaingo auzo batzuek edozein errepresalia politiko motari (napoleonikoa, absolutista, zein liberala izan) beti ihes egiten diotela erakusten digu. Afranzesatu ospetsuei, ordea, kontrakoa gertatzen zaie, esaterako, Mariano Luis de Urquijori, Mazarredori ... 1814 eta 1820an etengabe errepresaliatuak eta zelatuak izango baitira.

Finantza kontuak alde batera utzita, okupazio napoleonikoaren lehenengo fase honetan zer beste gauza gehiago jakin dezakegu andoaindarren bizitza baldintzen gainean? Eta 1813tik aurrera inongo zigorrik jaso ez zutelarik, gertaera horretaz baliaturik etekina jaso zutenen gainean?

Beste behin ere, iturri eskas eta mugatuekin egiten dugu topo.

Hori da, adibidez "segurtasun gutunak" deiturikoekin gertatzen dena. Dokumentu hori, pasaporte baten antzekoa zen dokumentu hori oparoa da baina Andoaini dagokioenez, okupazio napoleonikoan zehar, 1810etik 1811ra bitartekoak baino ez ditugu izango.

Urte horietako "segurtasun gutunak" soilik izanda, Andoaingo auzoek garai horretan bizi zuten zaindutako askatasunaren gainean ezin pisuzko ondorioarik atera.

Hala eta guztiz ere, informazio gutxi izatea ez da inongo informaziorik ez izatea bezala. Hala da, segurtasun gutun horiek okupazio napoleonikoaren menpe bizi diren Andoaingo auzoen gainean zenbait datu izatea ahalbideratzen dute.

Izan ere, dokumentu horren arabera, 1810eko uztailaren 16a eta 1811ko abuztuaren 28a bitartean –urtebete eskas– Andoaingo auzoen artean 540 segurtasun-gutun eman edo berreman ziren⁵².

50 A.U.A., C 2 103H/3, fol. 1 zuzen-1 atzekaldea, 2 zuzen-2 atzekaldea eta 3 zuzen. "Juramentatuen" kategoriarri buruz, hau da, Jose Bonaparte derrigorrean eta berarenganako inongo leialtasunik gabe obeditzen dutenak, ikus, berriro, ARTOLA, M.: *Op. cit.*, 38-39. or.

51 A.U.A., 218H/2, foliatu gabeko orriak. Donostiako edozein merkatarientzat tropa horien hornitzailea, edo "asentista", izatearen galerari buruz, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: "La úlcera napoleónica. El Ejército del Primer Imperio francés y su financiación. El caso de San Sebastián en el año 1810", *BEHSS*, nº 43, 2010, 529-542. or.

52 A.U.A., LH/126, fol. 1 zuzen-49 zuzen.

Dokumentu horren arabera, indar karlistak Euskal Herrian garaituak izan zireneko 1840 urtean baino ez dira hainbeste segurtasun-gutun banatuko, 525 hain zuzen ere. Ondorengo urteetan nabarmen jaitsiko den kopurua⁵³.

1845 eta 1850 urteen bitartean, bakarrik 42 segurtasun-gutun ematen dira. Horietako 33 1848an egin ziren. Urte horretan, 1848an, Europa guztian iraultza giroa zen nagusi. Giro nahasi horrek buruzagiak auzoenganako zaintza areagotzera bultzaraziko ditu Felipe de Orleansen Frantzian, edo Isabel IIaren Espainian⁵⁴.

Datu hauek zehaztasunez azaltzen digute, autoritate napoleonikoak edo beren kontrolpean daudenak -Andoaingoak kasu- herrialdea zorrotz menpe izatearen aldekoak direla.

Herrialdearen kontrol zorrotz hau, delako segurtasun-gutun horietan Andoaingo auzoen nahiz biztanleen deskribapenean islatzen da. Adibidez, segurtasun-gutun horien lehenengo eskaera egiten duenarengan. Bera Pedro Antonio de Genoa da, andoaindarra, 22 urtekoa, olagizona, zenbaki gabeko Ayerdi etxean bizi zena, gaztaina-koloredun ilea duena, kolore bereko betileak, sudur zuzenekoa (ertainekoa?), bekokia ere zuzena, aurpegi luzekoa, ia bizarrak gabea, altuera erdikoa eta begietan bereizten duen xehetasuna duena: hauetako bat, eskuinekoa, beltza zen eta bestea arre kolorekoa⁵⁵.

Antzeko deskribapen xehea dugu okupazio napoleonikoaren ondoren udal karguak dituen Juan Bautista Belderrainen kasuan ere. Bere deskribapena honakoa da: nekazaria, "Mimendi" baserriko jabea, 54 urteko gizona, ile urdinduna, beltz eta urdin arteko betileak dituen, bekoki zabalekoa, aurpegi "gorri bizikoa" –hau da, gorria–, altuera garaikoa, hala eta guztiz ere, dokumentuak dioen bezala, "lodia"...⁵⁶

Gauza bera topatzen dugu Sebastian de Mendizabalen kasuan. Okupazio ondorengo 1815eko aktei esker, badakigu napoleonikoen menpe izanik, Mendizabal udal kargoduna zela, udal lurren salmentaz aprobetxatu arren. 1810eko uztailaren 17an honek segurtasun-gutun bat eskatuko die, eta baita lortu ere, napoleonikoen kontrolpean dauden Andoaingo agintariei. Bertako bere deskribapena hauxe da: Anoetakoa, baina Andoaingo auzoa dena, 32 urtekoa, bere udaleko kidearen antzera baserri batean bizi dena -bere baserriaren izena "Balzugueta maior" zen, nahiz eta ez adierazi etxe hori berea zenik- gaztain ilun-koloreko ilea duena, sudur-luzekoa, aho ertainekoa (?), bekoki zabale-

53 A.U.A., LH/126, foliatu gabeko orriak. Segurtasun-gutunen handitze hori eragiten duen Lehenengo Gerra Karlistaren ikuspegi orokorrari buruz, ikus EXTRAMIANA, José: *Historia de las guerras carlistas*, Haranburu, San Sebastián, 1979, 1go alea.

54 A.U.A., LH/126, foliatu gabeko orriak, 1848ko gertakarien ikuspegi orokorrari buruz, ikus DROZ, Jacques: *Europa: Restauración y revolución, Siglo XXI*, Madrid, 1988.

55 A.U.A., LH/126, fol. 1 zuzen.

56 A.U.A., LH/126, fol. 2 zuzen. Bere agertzeari buruz, okupazio napoleonikoaren ondorengo Udaletan, kontsultatu A.U.A., A 1 L/H 60, foliatu gabeko orriak.

koa, bizar beltza duena, aurpegi iharrekoa, altuera baxukoa eta beste ezaugarri berezirik gabekoa⁵⁷.

Ygnacio de Lizarragarengan antzeko deskribapen oparoa aurkitzen dugu. Napoleonikoen okupazioa eta gero, Lizarraga ere udal kargoduna izango da –Andoaingo alkatea epe laburrez 1812an–. Zarautztarra zen baina Andoaingo auzoa eta bertan bizi zena, nekazari gisa, 1810eko uztailearen 17an segurtasun-gutuna eskatzen duenean. Eta honela deskribatzen da: San Pedro kaleko biztanlea, Torrea etxean, ile eta betile urdinekoa, bere bizarra bezalaxe, sudur eta aho ertainekoa, bere altuera bezalaxe, eta dokumentu horrek dioen moduan, “*jiboso*” –hau da, konkorduna– izateak bereizgarri egiten zuen...⁵⁸

Izan ere, segurtasun-gutun hauen bidez, ia obsesibotzat jo daitezkeen deskribapenez beteta direnak, autoritate napoleonikoek Andoaingo auzoengan oso kontrol zorrotza ezartzen dutela ikusten dugu. Hau honela izanik ere, Sebastian de Mendizabal, esaterako, lasai antzean somatzen da.

Hain zuzen ere, segurtasun-gutun horien beste eskatzaileetako bat Francisco Angel de Ychaso Asu izango dugu; dagoeneko ezaguna duguna, izan ere, okupazioan zehar udal karguak baititu eta okupazio horri eusteko udal lurren salmentez baliaturik, etekinak ateratzen.

Halaxe da, Ychaso Asuk 1810eko uztailearen 18an bere segurtasun-gutuna eskatzen du. Bertan 28 urteko nekazari gisa deskribatzen da, Andoaingo kalean bizi ez dena baizik eta “Aranastegui” izeneko baserri batean. 1813az geroztik inongo zigorrik jaso ez duen okupazio napoleonikoaren onuraduna den honen deskribapena hau da: gaztain koloredun ilekoa, betileak bezalaxe, bizar beltzekoa, sudur, aho eta bekoki zuzenekoa, altua dena, eta eskuineko lokiko orbainak bereizten duena...⁵⁹

Honek guztiak -udal lurren salmentak eta segurtasun-gutunak egitea- azaltzen digu, beste daturik ezean, nola garatzen den Andoainen lehenengo fase batean okupazio napoleonikoa.

Ikusten dugun bezala, lan honen sarreran aipatu den gipuzkoar Korregimentuaren dokumentazio prozesaletik ondoriozta zitekeenaren kontra, Andoainen bada egiaz jendea afranzesatutzat edo, behintzat, juramentatutzat hartua izan daitekeena.

57 A.U.A., LH/126, fol. 2 zuzen. Bere agertzeari buruz, okupazio napoleonikoaren ondorengo Udaletan, kontsultatu A.U.A., A 1 LH/60, foliatu gabeko orriak.

58 A.U.A., LH/126, fol. 2 zuzen. Bere agertzeari buruz, okupazio napoleonikoaren ondorengo Udaletan, kontsultatu A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

59 A.U.A., LH/126, fol. 5 atzekaldea.

Sebastian de Mendizabal edo Francisco Angel de Ychaso Asu horren adibide garbiak dira. Hauek Andoaingo udal lurren salmentaz etekina ateratzen dutenak dira. Delako salmenta hau Andoainek, beste udal batzuek bezalaxe, ezinbestean egin behar da okupazio napoleonikoen tropak mantentzeko.

Dena den, hori hala izanik ere, bata zein bestea, segurtasun-gutunak medio, autoritate napoleonikoen kontrol zorrotzpean izango da. Era berean, okupazio napoleonikoan zehar ateratzen dituzten etekinek ez dute eragozten okupazioa baino lehen beti izan dituzten udal karguak izan ditzaten, baita okupazioa bukatu eta gero ere.

1812an horixe da, Andoainen, ustezko afranzesatuen ikuspegia. Honako jende honek kontu eman behar izango luke, Tolosan egiten den antzera 1813an, tropa napoleonikoak behin garaituak izan eta Gipuzkoako mugetara kanporatuak direnean, Donostian izan ezik, non oso gogor eusten dioten, Frantziatik bidalitako errefortzuei esker, artean galdutako lurra berreskuratzeko itxaropena baitute.

3. OKUPAZIO NAPOLEONIKOAREN BIGARREN FASEA ANDOAINEN (1812-1813).

Ontzat ematen baditugu 1808tik 1814ra bitarteko Andoaingo udal kontuak, okupazio napoleonikoaren bigarren faseko –1812tik 1813ra doana– herri honen egoera beste hainbat herrirena bezalakoxea da.

Alegia, Andoainek gero eta galduagoa dirudien Napoleonen gerra mantentzeko ia ez du udal ondasunik saltzeko.

Hain zuzen, okupazioaren lehenengo urtean 80 lur sorta arte saltzen da eta 1811an 103. 1812an, ordea, balio handirik ez duen lursail bakarra saltzen zaio Miguel Ygnacio Urchoeguiari, 3158 errealetan.

Salmenta horrez gain, udal kontuetan zerga, tasa, errenten bidez 53.257 erreal baino ez da biltzen. Kopuru hori epe oso laburreko udalek jasoa izango da. Jose de Belaunzaran, esate baterako, alkate lanetan 1812ko apirila, maiatza eta ekainean baino ez da arituko. Jada ezaguna dugun Sebastian de Mendizabalen kasuan ere antzeko gauza gertatzen da. Hala da, okupazio napoleonikoan zehar enkantean ateratako udal lurren erosle hau (eta 1813an errepresaliarik gabe libratzen dena), Andoaingo alkatetzan 1812ko uztaila eta iraila bitartean izango da. Fernando de Aguirre, berriz, 1812ko urrian eta Ygnacio Lizarraga urte horretako azaro eta abenduan. Hain epe motzeko Udal hauek, beharbada, Napoleonen inperioaren gainbeheraren seinale dira⁶⁰.

60 A.U.A., C 2 103H/3, fol. 6 zuzen eta 7 zuzen-7 atzekaldea.



Napoleon Mosku aurrean 1812an. Egilea Bovinet-Couché (c. 1846). C. R. J. bilduma.

Dagoeneko aurreko atalean ikusi dugu lau gizon hauetako hiru, Fernando de Aguirre izan ezik, Napoleonen porrotaren ondoren, hain birringatua izan den komunitate horretan, ez direla errepresaliatuak izango halako karguak betetzeagatik.

Alegia, nahiz eta Andoaingo udal kontuek bestelakorik esan, ez dira afranzesatu-tzat, edo "kolaborazionista"tzat joak izango, ez kargu hori betetzeagatik, ezta beren udal ondasunen erosketengatik ere. Hala da, behin 1813an tropa aliatuek egoera bere menpean hartzen dutenean, eta are gehiago, Fernando VIIaren lehen errestituzio absolutista ondorenean, udal karguak izaten jarraitzen baitute, 1815ean, 1816an...⁶¹

Hasiera batean ondoriozta genezake errepresalia eza horren arrazoia dela Sebastián de Mendizabal, edo Francisco Angel de Ychaso Asu, edo Ygnacio Lizarraga, afranzesatu peto-petoak baino juramentatuak izango liritekeelako. Hala da, egoerak eraginda, frantziar autoritate zorrotzen aginduak betetzera behartua dagoen jendea.

Hala eta guztiz ere, egia da hauetako inor ez dela 1810ean lortzen duten segurtasun-gutun horretaz baliatzen -aurreko atalean aipatu dugun moduan- askatutako guneeta-

61 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

ra pasatzeko eta han napoleonikoen kontrako erresistentziara batzeko. Alegia, ez dutela joko lan honen sarreran hain luzez hitz egun dugun Juan Bautista de Erroren bidetik.

Hauek guztiak, ordea, Andoainen geratzen dira, eta hemen udal ondasunen salmenten etekina jasotzen dute (ez ahaztu okupazio napoleonikoa mantentzeko saldutako ondasunak direla). Era berean, udal kargu horietan obeditzen dute eta inbasorearen menpe dauden probintzia agintariek Donostiatik emandako aginduak betearazten dituzte. Batzuetan agindu horiek oso mehatxagarriak dira; esate baterako, 1812ko azaroaren 29an Jose Maria Soroa y Soroak emandakoa. Soroa Probintzia Kontseiluko lehendakaria zen, hau da: Gipuzkoako diputatu nagusiaren ordezkari afranzesatua.

Agindu horretan Soroak bai Andoaini, baita beste hainbat herriri ere, jakinarazten zion esandako epeetan tropa inbasoreak hornitu behar zituztela, baldin eta ez bazuten ondorio txarrik jasan nahi...⁶²

Horrek esan nahi zuen Andoainek 386 gari fanega eta 199 arto fanega eman behar zituela. Amezketeta, Asteasu, Sorabilla, Astigarraga, Beizama, Hernani, Errezil, Urnieta, Usurbilekin batera zegokion zatia zen. Hau da, dokumentu horrek dioen "*Comandancia de Hernani*" delakoaren menpe zeuden herriak. Helburua zen, Probintziako intendentea zen Trifon Maria de Echeverriak zioen bezala, dirutan ez ordaintzea Gipuzkoa osoari zegokion 4 milloi eta erdi erreal baino gehiagoko zerga⁶³.

Kopuru horiek egiatan askoz ere handiagoak ziren. Halaxe da, intendente probintziaren gutun autografo batek –Donostian, 1812ko urriaren 3an egina– zorrotz agintzen zuen, Andoainek hilabete batean eman behar zuela tropa napoleonikoak hornitzeko haragi, ardo, leka, lasto eta gatzetan 4.194 erreal⁶⁴.

Honelako eskaerak lehendik ere eginak zaizkio Andoaini. Hala da, beste dokumentu batzuek diote 1812ko ekainaren 4an Trifon Maria de Echeverriak berak ondasun higiezinaren gaineko %5eko zerga ezarri zuela tropa napoleonikoei ordaindu ahal izateko, uztaileen 31 arte ordaindu beharrekoa. Armada inperial honen hornitze-zerbitzua, momentuz, data horretan bukatua izango litzateke⁶⁵.

Daukagun dokumentazioak ez du bide ematen Andoaingo okupazio napoleonikoaren bigarren fasearen gainean luze antzean hitz egiteko.

Dena den, daukagun datuen bidez ikusi ahal dugu zein zen Andoaingo egoera 1808ko uda –okupazio napoleonikoa hasten denean– eta 1812 bitartean ...

62 A.U.A., 218H/11.

63 A.U.A., 218H/11.

64 A.U.A., 218H/11.

65 A.U.A., 218H/11.

Hau da, Andoaingo zenbait auzok, izen-abizen ezagunak dituztenak eta baita segurtasun-gutunei esker aurpegi ezagunekoak direnak ere, –Francisco Angel de Ychaso Asu, Sebastian de Mendizabal, Ygnacio Lizarraga...– okupatzaile napoleonikoen izenean Udaltaldeak gobernatzeko ari dira, ez dakigu zein neurritan euren borondatearen kontra.

Hau guztia Andoaingo auzoen interesen kontra eta Penintsulan gerra mantentze aldera, zeinaren baitan egongo den Napoleon laren garaipena edo porrota.

Horrek guztiak ez du eragiten beren kontrako inongo errepresaliarik, 1813ko urteaz geroztik, okupatzaile napoleonikoak Gipuzkoa, eta Andoaindik ere, kanporatuak direnean, Gazteiz, Arrasate, Senpere, Tolosako garaipen bizkorren ondoren, 1813ko ekainaren azken egunetan...⁶⁶

4. GERRA ETA BAKEAREN ONDORIOAK (1813-1815).



Britaindar ofizial baten karrikatura. Egilea Rowlandson (c. 1810).
C. R. J. bilduma.

Ustezko afranzesatuei buruz eta beren kontra eginiko errepresaliei buruzko ikerketaren puntu honetara iritsi eta gero, egin behar dugun lehenengo galdera da ea zein den Andoaingo egoera, behin tropa aliatuek napoleonikoak bota dituztenean 1813ko ekainean.

Funtsezko bi iturri dira Andoainen ikuspegi hori ahalbidertzen dutenak. Alde batetik, Andoaingo eliz-erakundearen kontabilitate-dokumentuak. Beste aldetik, Andoaingo Udaltalde zuzenean eginiko dokumentuak. Iturri hauetaz baliatuz, egoera hori deskribatzen saiatuko gara ondorengo idazpuruetan.

66 Gasteizko guda eta bere ondorioen gainean, ikus LARREINA ESCUDERO, Emilio: *La batalla de Vitoria. El fin de la aventura*, Almena, Madrid, 2013. 1813ko udako militar ekintzei buruz Gipuzkoan ikuspegi osoa eta berria izateko, ikus ZZ.AA.: *Guerra de la Independencia española: últimas campañas en el Norte, 1813-1814*, *Revista de Historia militar*, nº extraordinario 1, 2013.

Gipuzkoan guda horren berehalako ondorioei buruz, 1813ko ekainaren 21az geroztik egun gutxiren buruan gertatutakoak, interesgarria gerta daiteke RILOVA JERICÓ, Carlos: "La penúltima campaña de las guerras napoleónicas (II). La batalla de Vitoria. ¿Una victoria decisiva? (1813-2013)", *diariovasco.com*, *online* errekurtsoa.

4.1. Andoaingo eliz-ondasunak eta okupazio napoleonikoa.

"*Libro nuevo de la cofradía del Rosario*" izeneko dokumentuak nahiko ondo azaltzen du Andoaingo egoera okupazio napoleonikoa bukatu ondoren, 1813ko ekainaren 21ean tropa aliatuek Gasteizko gudan eta ondorengoetan –Arrasate, Bergara, Senpere, Tolosan...– frontea apurtzen dutenean, tropa napoleonikoak Donostia arte kanporatuz, non une horretan Gipuzkoan indartsu iraun dezaketen.

Horri buruz kofradia andoaindar horren liburuak dio, Andoain zein inguruko herrietako biztanleek bazekitela frantziarren atzera-egitean mota guztietako hilketak, indarkeriak ("*fuerzas*"), lapurretak, suteak... burutu zirela; honek dokumentu-galera eragin zuen artxibo ezberdinetan, elizakoetan nahiz zibiletan⁶⁷.

Hori da Karmengo kofradiaren liburuak, hitzez hitz, esaten diguna. Berria den liburua, izan ere 1813ko udako tropa napoleonikoen ustezko atzera-egite istilutsuan kofradiako beste kontuak suntsituak izan ziren⁶⁸.

1814ko urtarrilaren hasieran, artean gerra bukatzeko lau hilabete falta direnean, dokumentu horiek argi erakusten dute ezinezko izango dela Andoaingo hiru kofradietako kontuak finkatzea⁶⁹.

Kontu horiek, hala ere, liburu berri horretan azaltzen den moduan, badirudi ez dutela galera handirik jasan. Hala da, nolabait memoriaz berreraikitako 1813ko kontuetan kofradiako maiordomoaren aldeko 24 errealetako superabita azaltzen da. Maiordo-
moak 24 erreale hauek kofradiari emango dizkio, limosna gisa⁷⁰.

Datu hau interesgarria da, zeren eta 1814ko kontuek adierazten digute etekin gisa erreale bat baino ez dagoela; erreale hau ere limosnatan kofradiara emana izango da. 1815eko kontuak guztiz orekatuak izango dira, ez defizitik, ez superabitik gabe⁷¹.

67 A.U.A., LH/121, fol. 1 zuzen. Jacques Laurent eta Alberic Varennek atzera-egite hori deskribatzen dute sakabanatze orokor bat bezala Europan zehar, basakeria horiek guztiak ondo azalduko lituzkeena. Ikus LAURENT-VARENNE: *Op. cit.*, 491-566. or. Lehen inperioaren gainbeheratze horren ikuspegi orokor eta berriari buruz, ikus DE VILLEPIN, Dominique: *La chute ou l'Empire de la solitude, 1807-1814*, Perrin, Paris, 2008, 325-479. or.

68 A.U.A., LH/123, fol. 1 zuzen. Karmengo kofradiaren liburu berri hori egiteko 1814ko urtarrilaren 4an Carlos de Larramendi, Jose de Belaunzarán, Pablo de Sorondo menor eta Jose de Aldaz, Udalaren ordezkari gisa Andoaingo parroquia patronatuan, bildu ziren Manuel de Larramendirekin, parrokiako presbiterorik zaharrena.

69 A.U.A., LH/121, fol. 1 zuzen. Andoaingo kofradia eta beren egitekoari buruz hauek bezalako garaietan, ikus RODRÍGUEZ PÉREZ, A. I.: *Op. cit.*, 45-146. or.

70 A.U.A., LH/121, fol. 2 zuzen-2 atzekaldea eta 3 zuzen.

71 A.U.A., LH/121, fol. 4 zuzen eta 5 atzekaldea.

Karmengo kofradiari dagokionean, berreraikitako 1813ko bere kontuetan ere superabita dago. Superabit hori 29 errealekoa da. 1814ko kontuak orekatuta daude, ez defizitik, ez superabitik gabe. 1815ekoek bi errealeko superabita dute⁷².

Egia esate aldera, Andoaingo beste bi kofradietako liburuak kontuan hartzen baditugu, tropa napoleonikoen atzera-egiteak eragindako kalteak ez direla hain handiak ematen du.

Hain zuzen ere, esaterako, 1807tik aurrera baditugu kofradia “de Las ánimas” izenez deitutakoaren kontuak⁷³.

Kontu hauetan ikus dezakegu erlijio-erakunde horrek ez duela galera handirik jasan okupazio napoleonikoan zehar.

Badirudi soilik 1809an kofradiako zenbait kide berri galdu zituela. Halaxe da, 1807an 52 kide berri zeuden erregistraturik, 1809an bakarrik 23. 1810ean 49 ziren eta 1811ean 31era jaitsiko da. 1812an 52 izango dira berriro eta 1813an bere kopurua 57ra igoko da.

Era berean, dokumentu horrek erakusten digu Ychaso Asu familiako kideen aldetik ez dagoela interesik kofradian parte hartzeko. Neurri batean logikoa dena, izan ere, badakigu okupazio napoleonikoan zehar beraiek izan ziren udal ondasunen erosle ospetsuenetako batzuk...⁷⁴

Hasiera batean espero zitekeen bezala, Andoaingo beste eliza-dokumentuetan aurkitzen dugun okupazio napoleonikoaren ikuspegia ez da hain larria.

Halaxe da, 1813an hasitako “*Libro nuevo de la Fabrica de esta Yglesia Parroquial*” izenburuko idazlanaren lehenengo irakurketa batean 1813, 1814 etab.-ko kontuetan egoera nahiko lasaia ikusten dugu.

Hain zuzen ere, dokumentu horrek azaltzen digu gerra napoleonikoen arrasto bakarra Andoainen 346 belloi-erreal eta 14 marabedietako ordainketa izango litzatekeela. Kopuru hau, bai afranzesatuentzat baita liberalentzat ere hain gogokoa ez zen Fernando VIIak eskatuko dio Espainiako Klero Itzaltsuari 1815eko Estatu-kontuak ordaintzeko⁷⁵.

Hala eta guztiz ere, Andoaingo parrokiaren “*libro nuevo*” horrek, 1818 urtea eta gero, herri horren gaineko okupazio napoleonikoaren ondorio okerragoak erakusten dizkigu. Hain argia den dokumentu hori elizako diru funtsen azalpena zen, Miguel de Vergarak Andoainen ziurtatua 1819ko urriaren 20an⁷⁶.

72 A.U.A., LH/123, fol. 3 zuzen, 4 atzekaldea eta 6 atzekaldea.

73 A.U.A., LH/122.

74 A.U.A., LH/122, foliatu gabeko orriak.

75 A.U.A., LH/118, fol. 4 zuzen.

76 A.U.A., LH/118, fol. 16 zuzen-17 zuzen.

Andoaingo elizaren kontu azalpen horretan esaten da 1819ko irailaren 13an Sebastian de Echebeste Arriaga, lan honetan jada ezaguna duguna –hau da, Francisco Ángel de Ychaso Asu–, sasoi horretan Andoaingo udalean alkate eta errejidore lanetan dabil-tzan Juan Jose de Zatarayn eta Jose Antonio de Mimendirekin bildu zela⁷⁷.

Hauek, Miguel de Vergararekin batera, errege eta udalaren notarioa dena, akta bat egiten dute, non ziurtatzen den 1813ko tropa napoleonikoen atzera-egitean hilketak, lapurretak, indarkeriak, suteak eta beste hainbat ekintza ikaragarri gauzatu zituztela. Honenbestez, dokumentu honek kofradietako -Karmengoa, Errosariokoa...- liburuek ziotena ziurtatzen du, alegia, okupazio napoleonikoan zehar Andoaingo eliza-ondasun-zen zain gainerako beste ondasunen egoera ere, benetan tamalgarria zela⁷⁸.

Dokumentu horrek kofradiako liburuek ez zioten zerbait azaltzen digu. Hau da, 1813ko tropa napoleonikoen atzera-egitea suntsitzailetik 1819ra arte ezin izan zirela berreraiki Andoaingo parrokiako kontuak⁷⁹.

1819ko Andoaingo alkate eta errejidoreek afera hau dela eta, bere aurreko kargudu-nak zurrizten dituzte, 1813 urtea eta gero kontu horiek berreraiki ahal izateko paper bat bera ere ez zelako geratu⁸⁰.

Gauzak horrela, dokumentu horrek berak dio 1819ko Andoaingo udal gobernari-ek ikerketak egin dituztela 1808a baino lehenagoko parrokiako zordunen bat topatzeko. Ez dute ezertxo ere aurkitzen eta honenbestez, okupazio napoleonikoaren hasiera eta bukaera bitartean, –alegia, 1808tik 1813ra bitartean– gertatu zena berreraikitzea eraba-kitzen dute⁸¹.

Hala, aurkitzen dute 1808 eta 1809. urteen artean inbasoreek mendean hartuta-ko Andoaingo Udalak parrokiari hiru epe ezberdinetan 6702 belloi-erreal kendu ziola. Kopuru hori parrokiari eman beharreko lehen fruituetatik ateratzen zen eta dokumen-tu horrek izendatzen duen "*urgentes atenciones de aquel tiempo*" ordaintzera bideratua zegoen, hau da, okupazio napoleonikoaren kostuak⁸².

Dokumentu horrek 1810ean Udal afranzesatu horrek lehen fruituei kendutako kopurua 7880 belloi-errealekoa zela azaltzen du. Kopuru horren helburua 1808-1809 urteetakoa bera zen. Hau da, garai hartako "*urgentes necesidades*" delakoa ordaintzea, hartara, Andoaingo auzoei eragozteko dokumentuak izendatzen duen "*execuciones*

77 A.U.A., LH/118, fol. 15 zuzen.

78 A.U.A., LH/118, fol. 15 zuzen.

79 A.U.A., LH/118, fol. 15 zuzen.

80 A.U.A., LH/118, fol. 15 atzekaldea.

81 A.U.A., LH/118, fol. 15 atzekaldea.

82 A.U.A., LH/118, fol. 15 atzekaldea.

militares del usurpador” deiturikoa. Hau da, helburua zen tropa napoleonikoei eskura ordaintzea, hots, dirutan eta ondorioz, galeraztea hauek espezieak eskuratzeko indarkeriaz baliatzea⁸³.

Dena den, 1819 urteko Andoaingo Udal agintariek ez zuten inongo kopururik aurkitzen 1811tik 1813ra bitarteko okupazio napoleonikoaren kostuak ordaintzeko. 1814an bakarrik aurkitu zuten eliza-ondasunen beste konfiskatze bat. Kasu honetan 3450 erreale ziren, dokumentu honek izendatzen duen Madrilgo bere tronuan ezarritako Fernando VII erregearen zerbitzu “saihetsezina”ri eskainiak direnak⁸⁴.

Okupazioak guztira Andoaingo elizari 18.322 belloi-errealetako galera eragin zion⁸⁵.

Zalantzarik gabe balantze honek argi erakusten du okupazio napoleonikoak elizgizonetara eragindako kaltea. Hain zuzen ere, 1808tik 1813ra bitartean, elizgizon eta inbasoreen arteko harremana ez zen oso ona.

Gertaera nahasi hau are eta nahasiago bilakatzen du Iruñako apezpikuak bere hitzak medio. Iruñako apezpikua une honetan Andoaingoa bezalako parrokiaren arduraduna zen 1819ko azaroaren 7ko bere bisitaldi eklesiastikoan, 1808tik 1819ra bitartean Andoaingo parrokiaren kontuak ez zirela argitu azpimarratzen zuen; ezta 1810etik 1813ra bitartekoak ere. Apezpikuak ez zuen batere argi ikusten zeintzuk izan ziren Andoaingo parrokiari zegozkion lehen-emaitz eta hamar horien konfiskatzearen arduradunak. Apezpikuak ez zuen argi ikusten, era berean, Andoaingo parrokiak nola kobratuko zituen, garaiak agintzen zuen moduan, zor zitzaizkion kopuru horiek⁸⁶.

Hau guztia interesgarria da okupazio napoleonikoan zehar emandako galerak balioztatzeke eta, era berean, jakin ahal izateko zeintzuk izan ziren galera horien eragileak, nahiz eta apezpikuaren hitzek ez eman argibide askorik horren gainean. Hori guztia, 1819an Andoaingo Udaleko kargodunetako bat Francisco Angel Ychaso Asu izanik. Okupazio napoleonikoan zehar udal ondasunen salmentak medio, etekin gehien atera zuenetako bat, dakigun bezalaxe.

Andoaingo elizaren galera horiek zeintzuk eragin zituzten ez jakite horrek, 1832ko abuztuaren 26an Iruñako apezpiku berriak urte horri zegokion Bisitaldi Saindura arte iraungo du.

Bisita horren gainean egiten den aktan apezpiku berriak ondorioztatzen du ez zela egin inongo azterketarik Andoaingo elizako-ondasunei eragindako kalteei buruz.

83 A.U.A., LH/118, fol. 15 atzekaldea-16 zuzen.

84 A.U.A., LH/118, fol. 16 zuzen.

85 A.U.A., LH/118, fol. 16 zuzen. Afranzesatuen artean klerigo gutxi izateari buruz, ohiko salbuespenez gain, ikus LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 86-96. or. Liburu honetan gai horri buruzko bibliografia osatua aurkitzea ere posible da.

86 A.U.A., LH/118, fol. 17 zuzen-19 zuzen.

Horrela oso zaila da jakitea zeintzuk izan ziren Andoaingo ustezko afranzesatuak edota behintzat, zeintzuk atera zuten etekina bertako eliza-ondasunetatik okupazio napoleonikoaren garaian⁸⁷.

4.2. Andoaingo ondasun zibilak eta napoleonikoen okupazioa.

Okupazio napoleonikoaren bukaeran Andoaingo ogasun zibilaren egoera on nahiz txarrari buruz, okerrago nahiz hobeari buruz jakiteko, lan honen beste atal batzuetan erabili ditugun udal kontuak dira informazio-iturri hoberenak.

Halaxe da, kontu horietan ikusi ahal dugu 1813 urtean Andoaingo ogasun zibilaren egoerak hobera egin duela 1812 urtearen aldean. 1812an ez zegoen udal lurrik saltzeko. Okupazioaren azken sei hilabeteetan –alegia, 1813ko urtarriletik ekainera bitartean–, ordea, bada 24 sorta egiteko adina nahiko udal lurrik, 43.932 errealetako balioa dutenak⁸⁸.

Hala eta guztiz ere, badirudi horiek direla Andoaingo Udalak saltzeko dituen azken lurrak, 1808 eta 1812 bitartean okupazio napoleonikoa mantentzeko egindako salmentak eta gero.

Horretaz gain, jakiteko zein den Andoaingo ogasun zibilaren egoera napoleoni-koen inbasioaren amaieran badaukagu Andoaingo Udalak 1814 eta 1938 urteen artean jasotzen duen posta paper-sorta.

Dokumentu horretan zenbait udalen bileraren bi akta agertzen dira. Horietako bat 1814ko abenduaren 19an Hernaniko Udalean sinatua dago. Bestea, Goizuetako herrian 1815ko martxoaren 3an.

Biek gauza bera esaten dute: Andoaingo zenbait ordezkari beste udaletakoekin bildu dira denei eragiten dien otsoen izurrite baten gainean hitz egiteko... Egoera larria da, garai hartan "otsoen negua" izenez aditzera ematen zena, hau da, negua hain zen krudela, gorria, ezen pizti horiek herrialdera hurbiltzen baitziren, eta honenbestez, denen artean arazo hau konpontzen saiatzen dira. Bilera horietako lehenengoan bakarrik Donostia eta Hondarribiako ordezkariak faltako dira, Gipuzkoako bi udal garrantzitsuenetakoak. Hau, halere, ez da oztopo jakiteko zein zen probintziaren hondamen-egoera, bost urteko okupazio militarren ostean⁸⁹.

Bada Andoainek jasotako beste gutun-sorta bat, non hitz egiten zaigun Andoaingo beste bilera bati buruz, Urnieta, Hernani, Oiartzun, Errenteriako ordezkariekin egina. Oraingo honetan Hondarribiako ordezkariak ere bertan dira. Donostiakoak falta dira,

87 A.U.A., LH/118, fol. 60 atzekaldea-61 zuzen.

88 A.U.A., C 2 103H/3, fol. 8 zuzen-8 atzekaldea.

89 A.U.A., H 3, 4.

udal horrek Igeldo eta Altzako ordezkariak baino ez ditu bidaliko. Bilera berri horren helburua beste izurrite bat da, oso ohikoa dena Napoleonen ondoren European. Hau da: bidelapurak.

Arazo hori, bidelapurrena, alegia, Andoain zein beste herri horientzat oso larria izan behar zuen, otsoena bezain larria. Horrela behar izan zuen izan ere, bilera horretan Andoain eta beste udal horiek bidelapur horien kontra oso neurri estuak hartzen dituzte. Esaterako, auzi kriminalak oso arin epaitzeko epaitegi osaketa, militar agindupeko talde osaketa, eta ordainketa, bidelapur horiek harrapatzeko... Hauek bezalako neurriek erakusten dute Andoain eta Gipuzkoari eragiten dion bidelapurren izurritea, Napoleonen porrotaren ondorengo Frantzia eragin zuena bezain inportantea dela. Honek esan nahi du gizon asko zegoela ogibiderik gabe, edo gerrak eraginda barruz oso deseginak, bizitza "normal" bati ekiteko gogorik gabe, eta bidelapurren antzera bizi, sikiera, gerran zuten bizimoduarekin jarraitu ahal zuten⁹⁰.

Ikusten den antzera, egoera latza da baina are eta okerragoa izan daiteke. Hala da, frantziar atzera-egitearen ondoren, Andoaingo ogasun deuseztuak kostu gehiago pairatu behar ditu tropa aliatuak mantentzeko. Izan ere, nahiz eta Andoaingo Udal berriak protesta egin, Joseph Joachin de Colmenares eta Jose Maria Egañak, Gipuzkoako Aldundiaren izenean, Andoaingo Udalari aginduko diote ondasun higiezin arabe-rako zerga bat ezartzea aliatuen tropa horiei eusteko. Hauxe okupazio napoleonikoaren beste ondorioetako bat da⁹¹.

Andoaingo Udalak, hala ere, ezin izango du behar adinako arintasunez agindu hori bete. Horren proba da hamar egun eta gero, 1814ko azaroan, Colmenares eta Egañak diru gehiago eskatzen diotela Andoaingo Udalari. Oraingo honetan erregeari emateko. Hala eta guztiz ere, okupazio napoleonikoaren beste emaitzetako bat⁹².

Arazo hau hilabetez hilabete errepikatzen da. 1814ko abenduan Colmenaresen gutun berri batean Andoaingo Udalari esaten zaio Zizurkil behartua izan dela Andoaini ekonomikoki laguntzera, errege absolutua den Fernando VIIaren tropak mantentzeko⁹³.

Colmenaresen azaroko beste gutun baten arabera, esaten zen Zizurkilen erruz Andoainek ezin zituela ordaindu bertan zeukan erregimenduaren mantenu-kostuak⁹⁴.

90 A.U.A., LH/28, 1815eko otsailaren 11ko akta. Lehenengo inperioaren amaieraren ondorioa den pauperizazio orokor horren gainean, gai bietan aditua den idazlana interesgarria gerta daiteke, ikus WOOLF, Stuart: *Los pobres en la Europa moderna*, Crítica, Barcelona, 1989.

91 A.U.A., LH/28, 1814ko azaroaren 10eko gutuna.

92 A.U.A., LH/28, 1814ko azaroaren 20ko gutuna.

93 A.U.A., LH/28, 1814ko abenduaren 7ko gutuna.

94 A.U.A., LH/28, 1814ko azaroaren 23ko gutuna.

Badirudi erregimendu hori Armada espainiarrak inbasio napoleonikoaren kausaz osatutako bat zela. Leongo bolondresena zen, hain zuzen ere. Hala ere, une horretan Nafarroako 4.erregimendua Andoainen zegoen koarteleratuta. Gipuzkoako jeneral nagusia den Estanislao Salvadorrek 1815eko otsailaren 17ko gutun baten bidez zin egin zuen tropa hauek Andoaindik lehenbailehen ateratzeko⁹⁵.

Diego de Lizarrivarrek, Andoaingo ostatu jabeak, tropa horiek egiaz lehenbailehen herritik atera zitezela eskatzen zuen. Edo behintzat tropa horiek berari ahalik eta eragozpen gutxien eragin ziezaioten. Izan ere, Lizarrivarrek uste zuen, beste auzoen aldean, arrazoi hau medio, kaltetuago zegoela. Hala da, dokumentuak erregimenduko bi ofizialen ardura hartzera derrigortu zutela azaltzen digu eta orain bi ofizial horiez gain, baita erregimenduko komandantea zein bere emaztea eta familiaren ardura hartzera ere behartzen zuten. Horrek guztiak ostatuaz arduratzea eragozten zion, eta baita pattarra saltzea ere. Honen guztiaren berri ematen dio Mendebaldeko Pirineoetako Behaketa Armadaren Jeneral Nagusiari, Probintziako Kapitain Jenerala ere denari. Militar honek garai honetan, 1808ko inbasioaren antzekorik gerta ez zedin, bere menpe zituen Fernando VIIak Gipuzkoan koarteleratutako tropak. Hau beharrezkoa gertatu zen, hilabete batzuk geroago Napoleonek Elba irlatik ihes egin zuenean⁹⁶.

Lizarrivar ez da izango Andoainen Napoleonen kontrako militarren badaezpadako agertzea pairatuko duen bakarra. Hain zuzen ere, garai bereko gutun batean Colmenaresek probintziaren izenean, Amezketeta Orendaini eskatuko die Andoaingo Udalarri lagun diezaiotela gastu militarrek ordaintzen ⁹⁷.

Probintziako jeneral nagusia den Estanislao Salvadorrek, lehen ere aipatu dugunak, arazo hauek martxoaren 15era arte ezin dituela konpondu esaten du, nahiz eta Andoaingo Udalak erregimenduen koarteleratze kostuei aurre egin ezin diela esaten dion⁹⁸.

Promesa hau betetzea nahiko zaila zen, Napoleonek Elbatik ihes egin baino bost egun lehenago egiten baita.

Izan ere, dokumentuek azaltzen dute 1815eko maiatzean Andoain Espainiak Zazpiarren Koaliziorako bidaltzen dituen tropez betea izango dela, zeinak Napoleon garaituko baitute Waterloo urte horretako ekainean. Maiatzaren 21ean Lehenengo Kantabriar Erregimendua iristen da, 22an Erreenteriara pasatuko da, bere bukaerako helmuga denera. Alegia, Irungo mugara, han 1808ko beste inbasio berri bat galeratzeko⁹⁹.

95 A.U.A., LH/28, 1815ko otsailaren 17ko eta 1815ko martxoaren 2 eta 4ko gutunak.

96 A.U.A., LH/28, 1815ko otsailaren 21eko gutuna.

97 A.U.A., LH/28, 1815ko otsailaren 23ko gutuna.

98 A.U.A., LH/28, 1815ko martxoaren 2ko gutuna.

99 A.U.A., LH/28, 1815ko maiatzaren 17ko gutuna.

Ekainaren 12an, Napoleon Waterloon garaitua izan baino egun batzuk lehenago, Joseph Joachin de Colmenaresek eta Jose Maria Egañak, Nafarroa eta Gipuzkoako Jeneral Nagusiaren aginduz idatzitako gutun batean, Andoainera tropa gehiagoren iritsieraren berri ematen dute. 1815eko ekainaren 14an "*Voluntarios del Ribero*" erregimendua pasatuko litzateke handik, 16an "*Voluntarios de la Corona*"rena eta 17an Asturiaseko bigarrena. Artilleria, ordea, Irurtzun, Lizartza, Urnieta eta Oiartzundik zehar desbi-deratua izango da¹⁰⁰.

Oraindik 1815eko amaieran, Manuel Joaquin de Uzcangak, Villafuerteseko Kontearen izenean, Andoaingo Udalari ezinbestean aginduko dio militar unitate txikien –kapitain gradua duen teniente bat, sarjentu bat, kaporal bat eta zenbait soldadu– ardura hartzea¹⁰¹.

Egiaz suntsitutako ikuspegi honek –eliza eta zibil zorrak, bidelapurretak, negu gorriak, gastu militarrak...– ez luke izan behar une egokia afranzesatuek egin zutena ahazteko.

Hain zuzen ere, 1815ean giroa hain da nahasia, ezen Urnietako Udalak Andoaingoa-ri gogorarazten baitio frantziar dibisio batek han egin zituen gastuengatik zor diona: 667 arro ogi txuri, 24 arro ardo, 4 fanega arto eta zahia; kopuru horiek salbuespen gisa eskatuak ziren. Andoainek une horretan, 1815ean, esaten dio Urnietako Udalari ezin duela ordaindu eta Hernaniko Barrutiko Batzarrean diru hori eska dezala, Andoaingo Udalak han duen kreditu bat medio¹⁰².

Baina hurrengo idazpuruan ikusiko dugun bezala, hauek bezalako arazo ekonomiko edo sozialez gain, –garai bateko soldadu batzuk bidelapur bihurtzea, esaterako– Andoai- nen 1813az geroztik, egoera politiko erabat nahasia aurkituko dugu. Liberal eta erreakzio- narioen arteko borroka giro horretan saiaturako gara ikusten zer gertatu zen Andoaingo ustezko afranzesatuekin.

4.3. Ikuspegi politiko nahasi eta asaldatua.

Okupazio napoleonikoaren ostean, Andoaingo egoera berreraikitzeke ditugun dokumentuek ez digute gauza handirik aipatzen¹⁰³.

Hala da, 1815eko aktek, esaterako, 1808 eta 1813 artean Andoainen ezer ez zela gertatu aditzera ematen dute. Izan ere, afranzesatuen kontu-eskatzeari dagokionean, ez dugu bertan ezer aurkitzen. Korrejimenduko dokumentazioaren aldean, beraietan ez dago ezer.

100 A.U.A., LH/28, 1815ko ekainaren 12ko gutuna.

101 A.U.A., LH/28, 1815ko abenduaren 16ko gutuna.

102 A.U.A., LH/28, 1815ko uztailearen 27ko gutuna.

103 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

Hain zuzen ere, dokumentu horretako folio asko irakurri behar da Andoainen garai horretan politika mailako bat ez etortzearen gaineko arrastoren bat aurkitzeko.

Hala da, 1827ko abuztuaren 5eko saioan bakarrik ikusten dugu Europak 1789ko frantziar iraultzatik aurrera pairatu dituen arazo politikoen gaineko arrastoren bat.

Bilera horretan hitz egiteko eta botua emateko eskubidea zuten auzoei esaten zitzaizen Gipuzkoa libre geratzen zela, Bergarako Batzar Nagusietan onartutako araudiari esker, Absolutismoaren esparru militarra ziren "Errealista Bolondres" en taldeak osatzetik. Talde hauek izan beharrean, Gipuzkoak ahal zuen dokumentu horretan "*tercios forales*" deiturikoak osatzea¹⁰⁴.

Arazo hau guztia, Jose Ignacio Tellecheak bere garaian frogatu zuen bezala, erreakzionario eta liberalen arteko borrokaren sintoma bat zen Gipuzkoan¹⁰⁵.

Hain zuzen ere, hori da erreakzionario eta liberalen arteko liskarraren lehenengo arrasto garbia Andoainen. Hala da, horretaz aparte, istilu horien gaineko aipamenak arraroak dira liburu honetan. 1823ko abuztuaren 12 eta 13an adibidez, ikusten dugu 175 erreale ordaindu zirela Ballesteros jeneralaren errendizioa ospatzeko, Andoaingo parrokiako kanpaiak joaz. Gainerantzean, gobernu liberalari 1820 eta 1824ko hauteskondeen artean dagokiona erabat ezabatu da. Hain zuzen ere, afranzesatuak eta liberalak erreakzionarioei aurre egiteko batzen hasten diren garaian¹⁰⁶.

Hala eta guztiz ere, akten liburu honek nahiko argi erakusten du zeintzuk ziren Andoainen nagusi ziren ideia politikoak 1815 eta 1820 artean eta 1823 urtearen ondoren. Hasiera batean, afranzesatuak barkatzekoaren oso aldekoak ez zirenak.

1827ko aktaren erredaktoreak absolutismoaren mirespen eta men egitetik idazten du. Hala da, "*tercios forales*" deitutakoak osatzeari buruzko bere hitzak, ez dira ez afranzesatuak, ez liberalen oso aldekoak, nahiz eta "*tercios forales*" horiek ez diren "*Voluntarios Realistas*" en aldean, hain absolutista amorratuak.

Miguel de Bergarak, akta horren erredaktoreak, "*tercios forales*" deitutakoen osatzeari buruz hitz egiten zuenean, honen antzeko erretorikaz baliatzen zen, adibidez, gipuz-

104 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

105 Honi buruz ikus lan honen 6 oharrean adierazitakoa. Interesgarria izan daiteke ere une horietan Hondarribian bizi den egoerarekin konparatzea, ikus RILOVA JERICÓ, Carlos: "*Dueño y señor de su estado*". *Un ensayo sobre la persistencia del Feudalismo. El señorío colectivo de la ciudad de Hondarribia (1499-1834)*, Luis de Urantz Kultur Taldea, Irun, 2000, 95-98. or.

106 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak. Azken indar liberal horien errendatzea ospatzeko kanpai-hotsaren gainean, kontsultatu A.U.A., 243H/15, 1823ko kontuak, foliatu gabeko orriak. Ballesterosen errendatzearen pasarteari buruz, egiaz borrokarik gabe eta Riegok emandako eusteko aginduen kontra ziurtatzen dena, GIL NOVALES, Alberto (dir.): *Diccionario biográfico del Trienio Liberal*, Ediciones el Museo Universal, Madrid, 1991, 372. or. Liberal eta afranzesatuaren arteko batasun erlatiboari buruz 1820tik aurrera, ikus JURETSCHKE, H.: *Op. cit.*, 125-140. or., ARTOLA, M.: *Op. cit.*, 234. or. eta, era askoz zabalagoan, LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 181-308. or.

koarrek talde horiek eratzten zituztela *“del amor acendrado y acreditado de los Guipuzcoanos á su Rey”* delakoarengatik. 1827an Andoainen nagusi ziren ideia politikoez ere, honen antzeko esaldien bidez, erakusten ziguten gipuzkoarrek honen antzeko gauzak egin zituztela, adibidez: *“el siglo catorce armándose á sus expensas baxo el mando de Gil Lopez de Oñaz contra los franceses, navarros y gascones que entraron en Guipuzcoa, á quienes los arrojaron de su Pais derrotándolos completamente en Beotivar el veinte y tres de Setiembre de mil trescientos veinte y uno”*¹⁰⁷.

Erretorika hau, eta 1512ko Belateko gudari buruzko beste bat, esaterako, da 1827ko akta honetan nagusi dena. Ikusten dugun bezala, Erdi Aroko tankerakoak dira, “gotikoak” afranzasatu eta liberalentzat¹⁰⁸.

Izan ere, akta osoa, bai afranzasatu, baita liberalentzat ere oso gustukoak ez diren aipamenez betea dago. 1638ko Hondarribiko setioari buruzko aipamenak, adibidez: *“recordando que nuestros abuelos se armaron en masa y á su costa (en) el siglo diez y siete, y que cooperaron eficazmente á libertar á la plaza de Fuenterrabia, y á arrojar del suelo guipuzcoano al gran Principe de Condé”*¹⁰⁹.

Ikusten den moduan, akta honen hitzaldia, argi eta garbi, absolutista da, erreakzionarioa. Izan ere, akta honetatik 1793 eta 1795 arteko iraultza gerrei eta gerra napoleonikoei buruzko edozein aipamen ezabatu da, nahiz eta pasarte hauetan, *“tercios forales”* deitutakoak asko nabarmendu ziren, Andoingo auzoa den Juan Jose de Ugartemendia koronela bezalaxe...

Dokumentuan horien antzeko aipamenak falta badira ere, Andoingo 1827ko kargodunek onartzen dute akta horrek harrera ona izaten duela. Beren hitzetan, akta hori oso harro onartzen dute, horrela errege absolutoa zerbitzatzen baitute¹¹⁰.

Hau guztia inbasio napoleonikoaren, 1814tik 1820ra bitarteko erregimen konstituzionalaren, eta 1823ko errestaurazio absolutistaren ondorengo Andoingo egoera politikoaren sintoma argia da¹¹¹.

Dokumentuak, ikusten dugun moduan, errege absoluto bat zerbitzatzeari buruz hitz egiten digu, Erdi Aroan edo erabateko absolutismoaren garaian bezalaxe. Bertan

107 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

108 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

109 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak. 1638ko setioan “Condé Handia”ren agertzea, gaur eguneko gure ikuspuntutik ikusita, erreala baino sinbolikoagoa dena; Europa barrokoaren ikuspegitik, oster, sinbolikoa baino errealagoa izango litzateke, interesgarria suerta daiteke RILOVA JERICÓ, Carlos: “El Gran Asedio. Unas consecuencias de larga duración”, en VV.AA.: *1638ko Hondarribiako setio handia-1638: el Gran Asedio de Hondarribia*, Gustav-eko koadernoak, Donostia-San Sebastián 2011, 109-133. or.

110 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

111 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

ez da ezer aipatzen 1812koa bezalako monarkia konstituzionalari edo transakzionalari buruz, Bonapartetarrek 1808an Baionan eskaintzen dutena bezalaxe...

Dokumentu hori ez da erretorika soila. Bertan ziren asmoak -errege absolutoa itsu-itsu zerbitzatzea- gauzatu egingo dira. Fernando VIIaren monarkiaren une zailenetako batean egongo da: 1830 urtean, frantziar monarkia absolutoa bertan garaitua denean, iraultza dela medio, espainiar monarkia absolutoa zuen euskarri bakarra eroriaz, hartara¹¹².

Gipuzkoak, 1830eko Andoaingo Udalarekin batera, 1827tik "*tercios forales*" etako zerrendetan zeuden ofizial, ofizialorde zein tropak armak hartzera deituko ditu. Helburua, noski, kolokan zegoen "*el Deseado*" delakoaren tronoa eustea zen, ordura arte "*Cien Mil Hijos de San Luis*" en frantziar laguntza militarraz mantendua¹¹³.

1830eko urriaren 9an eraturako Gipuzkoako Batzar partikularrak nahiko argi uzten du zein den armen hartze dei horren helburua Gipuzkoan: Irungo mugan 1820ko iraultzaren aldeko liberalen -1830eko uztaileko frantziar monarkia liberalak babestua- balizko eraso bat geldiaraztea. Hala da, 1820 eta 1823 artean afranzesatuak barkatu dituzten liberal horiek, 1831ko irailaren 23ko Andoaingo Udal Artxiboko dokumentazioan garaitu beharreko etsaitzat ageri dira. Lapur eta gaizkiletzat joko dituzte eta euren aurka 233 gipuzkoarrez osaturako zutabe mugikorra bidaliko da, tartean hiru andoaindar. Agindu horiek Gipuzkoako Diputazio absolutistak eman zituen. Erakunde hau Pirinioetako mugako iraultza-tropen mugimenduagatik oso urduri zegoen.

1831n gobernatzen duten absolutistek erakusten duten gudu berotasun hori, ordea, ez da erabiltzen 1815etik aurrera absolutismoaren babesle nagusienetako bat denaren alde. Hau da: kleroaren alde.

Hain zuzen ere, 1820ko iraultzaren aldeko liberalak garaitzeko prestaketa hasi baino lehenago, Andoaingo Udal absolutistak, 1831ko abuztuaren 14ko saio partikularrean, kontuan hartuko ditu Andoaingo parrokiako presbiteroa den Juan Bautista de Zubeldiaren eskaerak¹¹⁴.

Presbiteroak, dokumentu horrek deitzen duen "*la época de la guerra de la independencia*" delakoan zehar, Andoaingo Udalari esaten zion ahaide pobreen apaizgaitegi-etxeko bebesleek Udalari zenbait mailegu egin ziotela, 39.710 belloi errealetako kopurua osatuz. Trienio Liberalaren garaian, 1820ko urriaren 20an, orduko Udalak zor hori ordaintzeko konpromezua hartu zuen, urteko 2000 errealeman emanaz erakunde horri. Presbiteroaren esanetan, erakunde hori -ahaide pobreen apaizgaitegi-etxea, alegia-

112 Une horietan zehar Frantziako egoeraren gainean, frantziar azken errege absolutistaren erregetzan zehar, eta honenbestez, Fernando VII. aren azken eusgarria, interesgarria izan daiteke CASTELOT, André: *Charles X. La fin d'un monde*, Perrin, Paris, 1988.

113 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

114 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

porrot egiteko arriskuan zegoen, 1814tik 1831ra, ez Andoaingo inongo udaletxe absolutistarik, ezta liberalik ere, ez zuelako zor hori ordaindu¹¹⁵.

1831ko Andoaingo Udal horrek, 1820ko iraultzaileei aurre egiteko prestatzen ari denak, presbiteroak arrazoi duela dio baina ezin duela ordaindu ezta sos bat bera ere, oso zorpetuta dagoelako. Udalak agindu dezakeen gauza bakarra da, beste zorrak ordaintzen doan heinean, apaizgaitegi-etxearen zorra pagatuko duela¹¹⁶.

Jarrera neurritsua eta transakzionala, beharbada, Jose Antonio de Muñagorri udal horretako partaidea delako; azken finean Muñagorri izango da 1839an erreakzionario eta liberalen arteko lehenengo gerra, antzeko beste transakzio baten bidez, konpon-tzen saiatuko dena. Hau da: "Bake ta Foruak" bandera¹¹⁷.

Nolanahi ere, badirudi Udal horietan Muñagorriren egoteak ez zuela balio izan Andoaingo klerigoei okupazio napoleonikoaz geroztik zor zitzaizkien zorrak ordaintzeko. Izan ere, Andoaingo Udalaren akta liburu hori 1836ko urtarrilaren 17ko saioarekin amaitzen zen, non karlisten erregeak tropa gehiago eskatzen zuen Madrilén jada ondo finkatutako monarkia liberalari erasotzeko¹¹⁸.

Azken finean, 1827 eta 1836 arteko dokumentazio horrek guztiak Andoaingo balizko afranzesatuak –Francisco Angel de Ychaso Asu, Sebastian de Mendizabal, Ygnacio Lizarraga...– inongo errepresaliarik pairatu gabe ihes egin zutela argi uzten du. Ez 1814an, ez 1820an, ez 1823an, ezta 1836an ere...

Halaxe da, okupazio napoleonikoaren garaian Andoaingo udal lurak erosi arren, sasoi horretan bertan udal karguak izanik ere, ez dugu aurkitzen beraien kontrako errepresaliarik.

5. ONDORIOAK.

Kontuan hartuta lan honetako beste ataletan ikusitako dokumentazioa, ondorioa hauxe izango litzateke, alegia, Andoainen ez zela afranzesaturik izan.

Izan ere, eskura ditugun dokumentu gehienek arabera, inbasio napoleonikoaren ostean, inbasio horren kontra gehien egin dutenak dira kaltetuenak. Ychaso Asu,

115 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak. Apaizgaitegi-etxe hori Juan de Legarra Echebeste y Eguzquizak sortu zuen.

116 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

117 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak. Muñagorri buruz ikus LABAYEN, Antonio María, *Muñagorri eskribau, bakegille ta fuerozale-El escribano Muñagorri, pacificador y fuerista*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1976.

Berrikiago RILOVA JERICÓ, Carlos: "José Antonio Muñagorri Otaegui" <http://www.euskomedia.org/aunamendi/83028/143764>.

118 A.U.A., LH/60, foliatu gabeko orriak.

Mendizabal, Lizarragari... gertatu zaienaren kontrakoa, hain zuzen ere; alegia, inbasio napoleonikoaren garaian Andoainen lasai-lasai ibili ziren eta ez zuten ezer egin inbasoreen kontra, antza. Eta, gainera, udal ondasunen salmentaren kontura, aberastuz, Francisco Angel de Ychaso Asuren kasuan oso argi ikusten den moduan...

Hurrengo idazpuruetan ikusiko dugu afranzesatutzat har daitezkeen andoaindarrak ez dutela errepresalien beldur izan behar, nonbait.

5.1. Soldadu antinapoleoniko baten eklipsea. Jose de Arana andoaindarra, Gipuzkoako bolondresen lehenengo batailoiko ofiziala.

Daukagun dokumentazioa, eskasa izan arren, Napoleonen aurka borrokatu dutenak epel edo afranzesatuak baino baldintza okerragoetan geratzen direla erakusten digu, hain zuzen ere.

Ondorio horretara iritsi gaitezke Miguel de Errazquinen kontrako auzira bueltatuz, lan honen sarreran kontuan izan genuena.

Dokumentu horretan ikusi genuen bezala, Errazquin Jose de Arana andoaindarraren laguntzailea zen Gipuzkoako bolondresen lehenengo batailoian.

Dena den, Errazquin susmagarritzat hartua izango da, nahiz eta okupazio napoleonikoaren garaian bere jokabidea heroikoa izan.

Alegiako auzoa zen Juan Echevesteren arabera, Miguel Joaquín de Errazquin Tolosatik gertu den herri honetan bizi izan zen hamahiru urte bete arte, gutxi gorabehera. Bere aita zen Mateo de Errazquinen etxean bizi zen. Garai honetan jada mailukaria zen bere aitarekin batera. Olagizona izan arren, idazten ikasi zuen, sikiera, auzi honetako aktak letra txukun samarrez sinatzeko moduan. Horretaz gain, gaztelera nahiko ondo ikasi zuen, hartara, bere deklarazioa euskeraz irakur ez ziezaioten, garaia hartan ohikoa zen bezala¹¹⁹.

Bere aitaren heriotzaren ondoren, Ataunera joan eta bertan hiruzpalau urte aritu zen lanean maisu errementari baten etxean. Gero bolondres aritu zen Gipuzkoako lehenengo batailoian eta han, Juan Echevesteren testigantzaren arabera, *"por largo tiempo (como) Asistente de un oficial hixo de Andoain"* delakoa zerbitzatu zuen, hau da, Jose de Arana¹²⁰.

119 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea, fol. 4 zuzen eta 9 atzekaldea.

120 Ataungo hiruzpalau urteko zerbitzuaren gaineko erreferentzia beste lekuko batzuek emana da, ez Echebestek, ikus, hurrenez hurren, GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedientea, fol. 7 atzekaldea, 8 zuzen, 9 zuzen eta 9 atzekaldea-10 zuzen. Batailoi horien gaineko xehetasunentzat, ikus LASA ESNAOLA: *Op. cit.*, 118-120. or.

Honek guztiak, Jose Aranaren antzera Andoain bezalako herrialdeak bost urtean zehar arpillatu zuen "Europako tiranoaren" kontra borrokatu zutenak, sozialki nahiko baztertuak daudela erakusten digu. Hala da, ematen du Aranak ez duela gogorik gogoratzeko, edota gogorarazteko hain konprometituak ez daudenei, bai berak baita Errazquinek ere okupazio napolenikoaren kontra egin zutena.

Izan ere, Errazquini buruz auzi honetan hitz egiten duen ofizial bakarra Fermín de Yriarte da, Gipuzkoako batailoien komandantea dena. 1814ko irailaren 29an Zubietan idatzitako gutun batean ez du Errazquini buruzko informe onik emango, azpimarratuz bere soldadu jokabidea ez zela oso egokia izan eta, gainera, desertatu egin zuela¹²¹.

Beste lekuko batzuek, Jose Francisco de Martinezek, adibidez, Errazquin bere etxean lau urte eta erdiz lanean izan zuen Ataungo maisu errementariak, hitz gogor horiek gezurtatu egingo dituzte. Martínezek dio, elkar harturik nonbait, bere apren diza bere etxetik atera zela Arbilla izeneko komandante baten agindutara jartzeko. Berak bidali zuen Nafarroako 4. batailoira. Handik Gipuzkoako bolondresetara pasatuko da, dokumentuak deitzen duen "un oficial de Andoain"en zerbitzura jarriaz, hau da, Jose de Aranarenera¹²².

Jose Francisco de Martinezek, Errazquinek zerbitzu hori ongi bete zuela esaten du. Ataungo olaetxera soilik bere ikasketak amaitzera bueltatuko da, biek adostu zuten bezala; unitate militar hori sakabanatzerakoan, Gipuzkoako batailoian baimena eman ziotenean. Martinez jarrera on horren lekukoa da. Hala da, maisu erremantari honek Errazquin 1814ko ekainetik urte bereko uztailaren 25era bitartean, berarekin lanean ari dela azaltzen digu. Apendizak Martinezen baimenarekin baino ez dio utziko lanari bere amaren etxera arropa bila joateko¹²³.

Beste lekuko batzuek Martinezen bertsioa baieztatu egingo dute, baina beren artean ez da Jose de Arana izango¹²⁴.

Halaxe da, badirudi gipuzkoar batailoien garai bateko ofizial andoaindarrak ez dakie-la, ezin duela, edota ez duela nahi Errazquin akusazio horietatik libratu.

Izan ere, Aranaren jokabidea auzi honetan zehar atsekabezkoa da, nolabait, gerra horretan gertatutakoa gogoratu nahiko ez balu bezala. Jose de Arana, badirudi ez dela gerra horretan oso kaltetua izan, baina auzi horretan zehar bere laguntzailea defendatzeke bere gabeziak, adieraziko liguke bere egoera ez dela Sebastian de Mendizabal edo Francisco Angel de Ychaso Asuarena bezain ona. Bi pertsonai horiek, lan honen

121 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espediente, fol. 17 zuzen.

122 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espediente, fol. 13 atzekaldea.

123 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espediente, fol. 13 atzekaldea-14 zuzen.

124 GAO-AGG CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espediente, fol. 21 zuzen-22 atzekaldea.

beste atal batzuetan ikusi dugun bezala, giro nahasi horretan aurrera egiten jakin izan dute, bai okupazio napoleonikoan, baita bere ondorenean ere...

5.2. Soldadu antinapoleoniko baten eklipsea. Juan Jose de Ugartemendia andoaindarra, Gipuzkoako bolondresen batailoietaiko komandante nagusia.

Andoaingo zenbait napoleonenauskako borrokalari ohiengan ikusten da bazterketa politiko hori. Hori da Jose de Arana eta bere laguntzailearen batailoieta borroka egin zuten beste batzuen kasua. Hain zuzen ere, Juan Jose de Ugartemendia, lan honen beste ataletan aipatu izan duguna, batailoi horietako goreneko buruzagia zena.

Bere lehenengo arma zerbitzuak frantziar iraultzaileen kontra izan ziren. Hori zenbait dokumentutan adierazita dago. Adibidez, Segoviako Archivo General Militarreko bere espedientean, edo Andoaingo Udal Artxiboan gordetako 1792ko urriaren 15eko gutun batean. Gutun honetan probintziako agintariek garai hartan "iraultzaile hydra" deitutakoaren kontra nola tropak antolatu dituzten azaltzen da; Espainiako Carlos IVaren lehengusua den Luis XVlenaren bere tronutik kendu arazi duen "iraultzaile hydra" bera¹²⁵.

1792ko urriaren 15eko gutun horretan, Juan Jose de Ugartemendia Andoaingo auzoen artean errekrutatutako tropak frantziar Konbentzioaren lurraldeak erasotzera zuzendu behar dituen kaporaletako bat bezala azaltzen da. Kanpaina horretan zehar lehenengo aldiz borroka egingo du eta gerora Armada napoleonikoa sortuko den iraultzaile tropak garaituko ditu; 1808tik, karrerako ofiziala izanik, Ugartemendiak, inongo zalantzarik gabe, borrokatuko dituen berak¹²⁶.

Izan ere, andoaindar militar honi buruz ditugun dokumentu guztietan ageri da 1808tik bera dagoen militar unitate guztietan ausardiaz borrokatzen duela. Hain zuzen ere, bere zerbitzu orriak azaltzen du Ameriketako kolonietara bidalia izan beharrean, penintsulako lekuri arriskutsuenean borrokatzea eskatu zuela¹²⁷.

Karrera militar hori igoera ezberdinez bere gorenera iritsiko da, Gipuzkoako batailoietaiko koronel izateraino, unitate horiek gidatuz 1813ko abuztuaren 31ko San Martzialgo batailan. Bataila horretan 1808ko abenduaren 12ko bere eskaera –arriku gehiengo tokian inbasore napoleonikoak borrokatzea– azkenetara eramango du. Hala da, Gipuzkoako bolondresen lehenengo batailoiaren historialak azaltzen du Juan Jose de

125 A.U.A., LH/116, fol. 128 zuzen-129 zuzen.

126 Andoaingo milizia foralean bere izendatzeari buruz, kontsultatu Archivo General Militar de Segovia (hemen-dik aurrera AGMS) U-140, zerbitzu-orria eta A.U.A., LH/116, fol. 128 atzekaldea.

127 AGMS U-140, 1808ko abenduaren 12ko gutuna.

Ugartemendia koronela “nekeak jota” hiltzen dela bataila hori gertatu eta handik gutxira, penintsulan Soult mariskalaren azken kontraerasoa garaitu ostean¹²⁸.

Gaur arte dakiguna da Juan Jose de Ugartemendia andoaindarrak jasotzen duen sari bakarra, okupazio napoleonikoari aurre egiten zebilerarik, bere bizia galtzea dela. Egoera berean, Sebastián de Mendizabali edo Francisco Angel de Ychaso Asuri gertatzen zaienaren kontrakoa, hain zuzen ere, okupazio napoleoniko horrenpean oso trankil bizi eta aberastu zirelarik.

Andoaingo beste kasu batzuetan errepikatzen den ikuspegi bera, hurrengo idazpuruan ikusiko dugun moduan.

Halaxe da, okupazio napoleonikoan zehar Ugartemendiaren beste familiakide batzuen eskarmentuek azalduko digute, nola inbasioaren kontrako garai bateko borrokalariak, Juan Jose de Ugartemendia edo Jose de Arana, adibidez, kaltetuagoak izaten diren afranzasatuak izan zitezkeen Andoaingo beste batzuen aldean, Sebastián de Mendizabal edo Francisco Ángel de Ychaso Asu, esaterako, okupazio napoleonikoaren ondoren epaituak edo errepresaliatuak izan gabe atera baitziren.

5.3. Istorio baten ostarteak. Pedro Manuel de Ugartemendia eta okupazio napoleonikoa.

Ugartemendia familiaren beste kideetako batek, Pedro Manuel de Ugartemendia andoaindarrak, Juan Jose de Ugartemendiaren antzera karrerako ofiziala denak, ez dirudi etekin asko atera zuenik okupazio napoleonikoaren amaieratik.

Bere kasuan, gauzak ez daude Jose de Aranarenean, edo are eta gehiago, Juan Jose de Ugartemendiarenean bezain argi. Alde batetik, badakigu Pedro Manuel de Ugartemendia dagoeneko karrerako ofiziala dela inbasio napoleonikoa gertatzen denean, eta ez dela batzen, ofizialki behintzat, Jose Bonaparteren alde dauden espainiar tropetara. Beste alde batetik, hala ere, ez du ematen inbasore napoleonikoaren kontra egiten duenik. Ez eskutan armak dituela behinik behin, Jose de Arana edota Juan Jose de Ugartemendiak bezalaxe.

Pedro Manuel de Ugartemendiaren biografoetako batek, Fernández Altuna irakasleak, azaltzen du, hain zuzen ere, XVIII mendearen bukaeran Pedro Manuel Espainiar Armadan ofizial sartu dela, arkitekto-titulua ateratzeko, Real Academia de San Fernandon sartu baino lehen. Edonola ere, 1798an kapitain graduako Infateria-ofiziala da. Honek “Independentzia gerra” deitutakoan parte hartzera konprometitu behar izango

128 Kontsultatu GAO-AGG JD IM 3/1/21 bis, Historial del primer batallón de Guipúzcoa, 50-51. or. Penintsular lurraldean azken bataila horren xehetasunentzako, ikus GUERRERO ACOSTA, José Manuel: *31 de agosto de 1813. Martes de gloria en San Marcial*, Galland books, Valladolid, 2013.

luke. Dena den, berari buruz daukagun dokumentazioak ez du ezer argitzen honen gainean. Hartara, Pedro Manuel de Ugartemendiak garai hartan egin ote zuenaren gainean espekulaziorako bide ematen da. Hala da, daukagun dokumentazioak ez digu esaten egiaz zer egiten duen, bai eskuin aldetik zein ezker aldetik, Jose erregearen alde izan edo bere kontra borroka egin erabaki behar denean¹²⁹.

Hain zuzen ere, dokumentu horietako batzuen arabera, baliteke Pedro Manuel de Ugartemendia karrerako espainiar militarren gutxiengo horietakoa izatea. Hauek Jose erregeari obeditzea zin egiten dute. Hau da, afranzesatutzat edo juramentatutzat, behinik behin, har daitezkeen 979 karrerako ofizialekoko bat izan zitekeen. Kopuru horretan hasi O’Farrill Gerra ministroarengandik eta tenienteorde graduraino bitarteko jendea sartzen zen¹³⁰.

1811ko maiatzaren 1ean Tolosan eginiko gaztainondo salmenta-eskritura batek Pedro Manuel de Ugartemendia orduntxe bertan ondo finkatutako auzo bat dela erakusten du. Alegia, okupazio napoleonikoaren gunea deneko lekuan, lan honen sarreratik hainbat aldiz aipatu dugun bezala¹³¹.

Are eta gehiago, dokumentu horrek lur horiek, argi eta garbi, “*contribuciones*” deiturikoak ordaintzeko saltzen ari direla adierazten du. Hau da, okupazio napoleonikoa mantentzeko, dirua lortzeko. Honenbestez, Pedro Manuel de Ugartemendia, aliatuen garaipenaren ondoren, “afranzesatu”tzat hartuak izan direnak egiten dutena, egiten ariko litzateke. Francisco Angel de Ychaso Asuren bezalako kasuak salbu...¹³²

Lur horien balioa, 1811ko maiatzaren 7ko hitzarmen batean irakurtzen den moduan, handia zen. Dokumentu horretan Pedro Manuel de Ugartemendiak Real Academia de San Fernandoko arkitekto zein Tolosako auzo izanik ere sinatzen du¹³³.

Hitzarmen horretan, gainera, Pedro Manuel de Ugartemendiak lur horiek prezio onean Juan Antonio Dugiolsi ematen dizkiola azaltzen da. Lan honen sarreran zabal azaldu genuen bezala, Dugiolsi Tolosan afranzesatu nagusienetakoko bat izatea leporatu zitzaion. Hauxe da, hain zuzen ere, garai horretan Pedro Manuel de Ugartemendia

129 Ikus FERNÁNDEZ ALTUNA, José Javier: “Pedro Manuel Ugartemendia: XIX. Mendeko arkitekto andoaindarra”, *Leyçaur*, 9, 2006, pp. 28-31. Interesgarria izan daiteke ere LABORDA YNEVA, José: *El proyecto de Arquitectura en la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando. Las pruebas de examen de los aspirantes vascos 1776-1855*, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2011, 420-423. or., non arkitekto-titulua eskuratzeko bere azterketari buruzko datuak jasotzen diren.

130 Jose laren gobernuarekin espainiar estamentu militarren aldetikako elkar hartze horien gainean, ikus LÓPEZ TABAR, J.: *Op. cit.*, 80-86. or.

131 GAO-AGG PT 708, fol. 134 zuzen.

132 GAO-AGG PT 708, fol. 134 zuzen.

133 GAO-AGG PT 708, fol. 179 zuzen-179 atzekaldea. Ordaintzen duen kopurua 10.535 errealekoko da.

ofizial beterano hori egiten ari zena. Beste Ugartemendiarrak, ostera, (Juan Jose kasu) frontean borrokan dabilta¹³⁴.

Hauek bezalako aztarnak, Pedro Manuel de Ugartemendia, kopuru txikietan baldin bada ere, okupazio napoleonikoa mantentzeko enkantean ateratako lurak saltzen eta erosten ari dela erakusten digute.

Hori Andoainean 1808az geroztik ondasun horiek erosten dituztenen izenekin egiten den zerrendan argi azaltzen da. Bera bertan agertzen da, adibidez, 1811an Mocollo-goazpiako alderdian udal lurretako 544 postura erosiz, posturako erreal bat ordainduz. Alegia, 544 erreal guztira...¹³⁵

Halere, beste zenbait dokumentu adierazten dute Pedro Manuel de Ugartemendia, aztarna horiek alde batera utzita, "*causa patriota*" delakoaren alde lan egin behar izan zuela adierazten dute. Jose de Arana edo Juan Jose de Ugartemendiak adina, behintzat.

Hala izan ez balitz, 1813 urte ondorengo bere bizitzako zenbait pasarte ulertzea zaila izango litzateke.

Lehenik eta behin, urte horretan ezarritako autoritateen konfidantza. Tropa anglo-portugaldarrek 1813ko abuztuaren 31n suntsitutako Donostia bezalako lehen motako gotorleku bat berreraikitzea, esaterako.

Afranzesatu bati ez dagokio ezta ere, Gipuzkoako liberalen nagusia den Villafuertes kontearekin duen adiskidetasuna. Halaxe da, konteak, zeina 1813ko tropa aliatuen iritsieran Gipuzkoako lehenengo buruzagi politikoa izendatua baita, berarengan konfindantza handia izango du. Hasi 1813tik aurrera, Donostiaren berreraikitzearen enkargutik, eta 1830eko apirilaren 3ra arte, adibidez, eskatzen dionean Donostian jaso dezala hemen eta Bilbon lan egiten duen merkatari batek zor ziona¹³⁶.

Bien arteko konfidantza honen jatorria baliteke biak ideologia liberal antzekoa izatean egotea. Hain zuzen ere, biak liberalismoaren esparru moderatuenaren aldekoak ziren. Fernando Albizuk, Donostiako Done Bartolomeko mojen komentuko bikario denak, halaxe deskribatuko luke behintzat Pedro Manuel de Ugartemendia, Manuel de Llauderrek, –orduan "*Provincias Bascongadas*" deitutakoen kapitain jeneralak– Pedro Manuel de Ugartemendiaren ideia politikoei buruz galdetzen dionean; izan ere, Ugartemendiak eskatu egin dio beteranoen uniforme eta foru militarra erabiltzea¹³⁷.

134 GAO-AGG PT 708, fol. 180 zuzen.

135 A.U.A., C 2 103H/3, fol. 3 atzekaldea.

136 Kontsultatu GAO-AGG PT 739, fol. 80 zuzen. Villafuertes kondearen eta bere eginkizun politikoen gainean, ikus CAJAL VALERO, Arturo: "*Paz y Fueros*". *El conde de Villafuertes. Guipúzcoa entre la "Constitución de Cádiz" y el Convenio de Vergara (1813-1839)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2002.

137 Kontsultatu AGMS U-140, 1823ko azaroaren 14ko gutuna.

Honek guztiak adierazten du Pedro Manuel de Ugartemendiak, nahiz eta ez duen okupazio napoleonikoaren kontra, armak harturik, borrokarik egin, Jose de Arana edota Juan Jose de Ugartemendia andoaindarren antzera esaterako, hala eta guztiz ere, 1808tik aurrera zerbait egin behar izan zuela "causa patriota"ren alde, afranzesatuen kontra daudenen alde...

Honek, dena den, beste andoaindar karrerako ofizialen aldean, Jose de Arana edo Juan Jose de Ugartemendia, esaterako, ez du hainbeste kaltetuko. Hauetako bat, Jose de Arana, nahiko baztertua zegoena, izan ere, ezin izango du defendatu bere laguntzaile ohia, bidelapurra izatea leporatzen diotenean. Bestea, Juan Jose de Ugartemendia, San Martzialgo bataila eta gero hila suertatzen dena, inbasio napoleonikoaren kontra borrokatzeagatik, berari edo bere oinordekoei saria eman zieteneko berririk ez delarik.

Izan ere, Pedro Manuel de Ugartemendia kapitaina, beste liberal asko bezala, susmo eta errepresaliapean biziko da, behin 1823az geroztik, Fernando VII behin betiko errege absolutu ezarria denean. Dena den, beste liberal moderatu askoren antzera, "*rey felón*" deitu erregearen heriotza itxaronez, nahiko lasai, eta aberastuz, bizi ahal izango da. Hain zuzen ere, Europa osoan zehar absolutismoaren euskarri nagusi denaren bermatzaile izanik, hau da, Elizarena...¹³⁸

Hortaz, Pedro Manuel de Ugartemendiaren kasua ikusita, eta Jose de Arana edota Juan Jose de Ugartemendiaren bezalako kasuekin alderatuz, badirudi Andoaini dagokionean behinik behin, 1813tik aurrera afranzesatuen aldeko jarrera erakusten zutenek kalte gutxiago pairatzen dutela.

5.4. Ondorioen ordua. Martín Jose de Ameztoy-ren istorio deserosoa. Balizko afranzesatu bat andoaindar "patrioten" babesle.

Gauzak horrela, Andoainen 1808tik 1813ra bitarteko gerra napoleonikoen fase luze horretan zehar, afranzesatu edo "patriota fin", bilau edo heroien gainean ez legoke beste ezer esatekorik?

Honenbestez, atera daitekeen ondorio bakarra da epelak, gutxien konprometituak, Andoainen afranzesatua izateko deskribapenean ondoen egokitzen direnak, gurutzbi-de historiko horretan hobeto paratuak ateratzen direla, Napoleon eta Jose bere anaia-

138 Dokumentazioan ageri dira, hain zuzen ere, Pedro Manuel de Ugartemendiak Donostiako Santa Clara komentuentzat bermatutako maileguak. Finantza-prozesu hori 1826ko abenduaren 18an jartzen da martxan eta bermatzen darrai, gutxienez, 1833ra arte. Ugartemendiak Tolosako Plaza berriko 6 zenbakidun etxearekin bermatzen zuen eta baita Tolosako korreo kaleko 26 eta 27 zenbakidunekin ere. Kontsultatu GAO-AGG PT 738, fol. 157 zuzen-163 zuzen, 357 zuzen eta 358 zuzen-358 atzekaldea eta GAO- AGG PT 742, fol. 17 zuzen-21 atzekaldea.

ren kontra konprometituagoak daudenen aldean, Juan Jose de Ugartemendia edo Jose de Arana kasu?

Ezin ukatu hori Francisco Angel de Ychaso Asu edo Sebastian de Mendizabal bezalakoek kasua denik. Dakigun bezala biek Andoain gobernatzen dute bai okupazio napoleonikoan zehar, baita ondorenean ere, 1815az geroztik okupazio napoleonikoaren kontra borroka egin zutenen izenak, Jose de Aranarena kasu, ageri ez diren Udaletan karguak izanik.

Dena den, Andoaingo afranzesatuak, beren izate edo ez izatearen, beren kontrako errepresalien... gaineko lan hau ondo bukatze aldera, ezinbestekoa da Martin Jose de Ameztoren kasua kontuan izatea.

Korregidoreak okupazio napoleonikoan bete-betean izandako bere jokabide politikoa medio, bere kontrako auzia hasten du. Ameztoren lan honen sarreran aipatu genituen beste asko bezalaxe, Tolosara joaten da dokumentuak dioen *“la dominación enemiga”* delakoan zehar¹³⁹.

Hain zuzen ere, Ameztoren Tolosako auzoa izateaz gain, Amasa-Billabonakoa ere badela aitortzen du. Ameztoren, hortaz, Pedro Manuel de Ugartemendia kapitainak bere garaian izandako antzeko egoera batean zegoen¹⁴⁰.

Ameztoren, afranzesatu izatearen akusazio horretatik babesteko, lekukoak deituko ditu frogatzeko, bera Tolosan errefuxiatua egonik ere, frantsesek harrapatutako Amasa-Billabona, Andoain, Zizurkilgo “patriotak” defendatu zituela¹⁴¹.

Horrela, Ameztoren 1811n Tolosara joan zenetik, berari esker erregimentu erregulatua eta disziplinatuetan inbasore napoleonikoa borrokatzen duten patrioten kontrako exekuzioak eten zirela frogatzen saiatuko da¹⁴².

Ameztoren, Andoain edo inguruan harrapatutako bolondresen kontra geldiarazten dituen errepresaliak oso gorrak dira, lekuko batzuen esanetan.

Adibidez, okupazio napoleonikoan zehar Amasa-Billabonan aguazila zenak, *“Camino Real”*-aren ondoan Andoainen hartutako lau bolondres zintzilakatzera derrigortzen dutela esaten du. Hau da, gaur egungo N-1 denean. Hau zentzabide izatea nahi zen, jakina. Lekuko batzuen arabera, urkamendi batean jarri zituzten. Beste batzuen arabera, berriz, *“Camino Real”*-eko bide etzeko zuhaitzetan. Nolanahi ere, helburua Napoleonen

139 Kontsultatu GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea.

140 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 1 zuzen.

141 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 103 atzekaldea-104 zuzen. Ameztoren esaten zuen Tolosara joan zela frantziar guarniziorik gabeko tokietan pasatzen diren banda armatuen gehiegikeriak saihesteko.

142 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 110 atzekaldea.

kontrako borrokalari hauen gorpuak denen agerian uztea zen, zentzarazteko. Hauen artean Eraso brigadierraren emaztearen lehengusu bat zegoen¹⁴³.

Egoera ikaragarri horren aurrean, Ameztok balentria handiz jokatu zuela esaten du, Jose Antonio de Zavala, Gabriel de Mendizabal jeneralaren koinatua babestuz, adibidez; izan ere, frantsesek harrapatua zuten eta Tolosara bidalia bahiturik, Mendizabal jeneralak armak utz zitzaizkion. Ameztok esaten du ahal zuen guztia egin zuela, Zavala fidantzapean eta ohorezko hitzpean Gasteizera joaten utz zezaten¹⁴⁴.

Ameztokri egiaz bere aldeko lekukoak ez zaizkio falta, adibidez, Diego de Ceberio, Tolosako parrokiako presbiteroa edota Juan Antonio de Zalacain, herri horretako aguazila. Lekuko hauek esaten zuten, adibidez, Ameztok higuintzen zuela Napoleonek Fernando VII preso hartu zueneko modu desleiala, edota euskal probintziak inperio napoleonikora anexionatuak izatea¹⁴⁵.

Honek guztiak, dena den, ez zuen galerazi prozesuaren fiskalak argitara ateratzea 1811ko irailaren 5eko ziurtagari bat, non ikusten baitzen Ameztok okupazio napoleonikoan zehar Amasa-Billabonako alkatea izan zela. Gorabehera hau medio, Ameztok, afranzesatua izatea leporatuta, epaitua izango da. Francisco Angel de Ychaso Asu, Sebastian de Mendizabali... gertatzen zaienaren kontrakoa, alegia¹⁴⁶.

Egoera txar honi gehitu behar zaio afranzesatua izateagatik kondenatuta dagoen batek esaten duena. Lekuko hori Bartolome de Otegui da, lan honen sarreran aipatu duguna. Berak, Iruratik pasatzen direnean, Donostiarantz zeraman aguazilari esaten dio Ameztok harreman ona zuela Tolosako komandante napoleonikoarekin. Horren ondorioz, Irurako eta Amasa-Billabonako erretoreak Frantziara deportatuak izan ziren¹⁴⁷.

Horri Francisco Medinak, Otegui atxilo Donostiarantz eraman zuen aguazilak, gehitzen dio Miguel de Eraso brigadierrak ez zuela Ameztokrenganako iritzi onik, bere emaztearen lehengusuaren heriotza medio.

143 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 139 zuzen-139 atzekaldea eta 145 zuzen. Eraso brigadierra Zaragozako setioan frantsesek harrapatua izan zen, Frantziara deportaturik zeramaten, Andoainen ihes egin zuen eta dokumentu honek dioen bezala, ez zen hara bueltatu okupazio napoleonikoa bukatu zen arte.

144 AGG-GAO CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 103 atzekaldea. Mendizabal eta bere jokabideari buruz gerra horretan zehar, interesgarria gerta daiteke RILOVA JERICÓ, Carlos: "Vida de un general de las guerras napoleónicas, Gabriel de Mendizabal e Iraeta (1764-1838)", *BEHSS*, nº 45, 2012, 216-223. or.

145 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 127 atzekaldea eta 132 zuzen.

146 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 150 zuzen-153 zuzen.

147 Bartolomé de Otegui zinausletzat joa izango da, Ameztok defendatzen duen prokuradoreak gogoratzen duen bezala; arrazoi hau dela bide, bi hilabeteko kondena bete beharko du Donostian, derrigortutako lanak burutu beharko dituelarik. Kontsultatu GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 155 zuzen, 169 atzekaldea-170 zuzen eta 320 zuzen.

Hori, hala eta guztiz ere, Miguel de Erasok berak gezurtatu egingo du, prozesuari gehituz oso interesgarria den gutun bat. Hau oso funtsezkoa da jakiteko Andoaingo balizko afranzesatuekin gertatu zena 1808 eta 1813 artean.

Eraso brigadierrak 1814ko uztailaren 6an Tolosan datatuta dagoen gutun horretan dio berak ez zuela Amezttoy ezagutzen, ez zuela bere iritzi politikoei buruz inongo berririk eta ez zuela inongo zerikusirik izan bere emaztearen lehengusuaren heriotzarekin. Eraso brigadierrak gutun horretan esaten zuen Medinak (Amezttoy) Anoetako zubi ondoko bere emaztearen lehengusu eta beste hiruren fusilamenduaz kexatzen entzun zuela. Erasok gutun horretan ere dio bere emaztearen lehengusuaren atxiloketaren errua ez dela, inondik ere, Amezttoy-rena. Batetik, Amezttoy-k ez zekielako ezertxo ere horren gainean, eta bestetik, eta lan honetarako garrantzitsuena dena, bere emaztearen lehengusuaren atxiloketa eta fusilamendua Andoaingo alkatearen errua izan zelako...¹⁴⁸

Tamalez ez dakigu zer gertatu zitzaion handik aurrera afranzesatu prototipoa izan zen Martin Jose de Amezttoy-ri, berari egotzi zitzaizkiolarik beste batzuei -Francisco Angel de Ychaso Asu, Sebastian de Mendizabali...- egotzi beharreko erruak.

Bere prokuradorearen arrazoibide luze baten ondoren, Amezttoyren aurkako auzia bere aldeko edo kontrako epairik gabe amaitzen da.

Auzi horrek nahiko argi uzten duena da, Eraso brigadierraren gutunean ikusten dugun bezala, esaterako, Andoainen badirela argi eta garbi afranzesatuak diren pertsonak eta hauen kontra ez dela ezertxo ere egiten.

Hori izango litzateke, azken finean, 1814tik aurrera Andoaingo ustezko afranzesatuei ezartzen zaien sari eta errepresalien laburpena, bandera napoleonikoak erabat zanpatsuak direnean. Badirudi sari dexente egon zela. Esaterako, balizko afranzesatuei baime-na ematea okupazio napoleonikoan erosi zituzten lurak mantentzeko eta udal karguak izaten jarraitzeko.

Errepresaliak ez ziren izan okupazio napoleonikoan zehar udal lurak erosi zituztenentzat edota udal karguak izan zituztenentzat, Francisco Angel de Ychaso Asu edo Sebastian de Mendizabalen kasuen antzera, baizik eta Martin Jose de Amezttoy bezalako pertsonentzako.

Hori egiten da, nahiz eta Miguel de Erasok, Napoleonen kontra borrokatzen duen armadetako brigadier batek, Amezttoy defendatu. Eta gainera, nahiz eta Erasok berak adierazten duen zeintzuk izan zitezkeen benetako errudunak, Francisco Angel de Ychaso Asu, Sebastian de Mendizabal... bezalako pertsonak, adibidez.

148 GAO-AGG CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 espedientea, fol. 203 zuzen.

Zalantzarik gabe, paradoxa historiko interesgarri baten aurrean gaude, Andoain, afranzesatuen Historia Orokorren barruan, leku inportante bilakatzen duena.

6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.

6.1. Iturri dokumentalak.

6.1.1. Andoaingo Udal Artxiboa-Archivo Municipal de Andoain.

- LH/60, 103 H/3, LH/3, LH/4, 243 H/15, LH/28, LH/116, LH/118, LH/120, LH/121, LH/122, LH/123, LH/126, 11H/2, 218H /2, 218 H/11.

6.1.2. Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Archivo General de Gipuzkoa.

- CO CRI 1813, 2 kaxa, 3, 6 eta 7 espedienteak; CO CRI 1814, 1 kaxa, 1 yeta4 espedienteak; CO CRI 1814, 2 kaxa, 2 espedienteak; CO CRI 1814 3 kaxa, 2 espedienteak.
- PT 708; 738; 739; 742
- D IM 3/1/21 bis, Historial del primer batallón de Guipúzcoa.

6.1.3. Archivo General Militar de Segovia .

- U-140.

6.2. Inprimatutako iturriak.

- CRUZ MUNDET, José Ramón (ed.), *Konbentzioko Gerra Gipuzkoan (1793-1795): I. V. Sarastiren eskuizkribua-La Guerra de la Convención en Gipuzkoa (1793-1795): el manuscrito de I. V. de Sarasti*, Koldo Mitxelena kulturunea-Diputación Foral de Gipuzkoa-Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia-San Sebastián, 1993.
- LAS CASES, *Mémorial de Sainte-Hélène*, Éditions Garnier Frères, Paris, 2 Tomes, 1961.

6.3. Bibliografia.

- ÁLVAREZ JUNCO, José: *Mater dolorosa. La idea de España en el siglo XIX*, Taurus, Madrid, 2002.
- AROCENA ARROQUI, Fausto: *Juan Bautista de Erro y Azpiroz 1773-1854*, Diputación Provincial de Guipúzcoa, San Sebastián, 1954.
- ARTOLA, Miguel: *La España de Fernando VII*, Espasa-Calpe, Madrid, 1986.
- ÍDEM: *Los afrancesados*, Alianza, Madrid, 1989.

- ARZAC ALBERDI, Antonio: "Dugiols", *Euskal-Erria*, tomo 40, 1899, orr. 136-142.
- AYERBE IRIBAR, M. R.: *Ensayo sobre la naturaleza y trascendencia de la legislación foral de las provincias vascongadas de Julián Egaña. El autor y su obra (1786-1864)*, Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 1996.
- CASTELOT, André: *Charles X. La fin d'un monde*, Perrin, Paris, 1988.
- DE DIEGO, Emilio: *España, el infierno de Napoleón. 1808-1814. Una Historia de la Guerra de la Independencia*, La esfera de los libros, Madrid, 2008.
- DE VILLEPIN, Dominique: *La chute ou l'Empire de la solitude, 1807-1814*, Perrin, Paris, 2008.
- DROZ, Jacques: *Europa: Restauración y revolución, Siglo XXI*, Madrid, 1988.
- ELORZA, Antonio: *La religión política: el "nacionalismo sabiniano" y otros ensayos sobre nacionalismo e integrismo*, R&B, Donostia-San Sebastián, 1995.
- ESDAILE, Charles: *La guerra de la Independencia*, Crítica, Barcelona, 2004.
- ESTORNES LASA, Bernardo: "Juan Bautista de Erro y Azpiroz", <http://www.euskomedia.org/aunamendi/40595>.
- EXTRAMIANA, José: *Historia de las guerras carlistas*, Haranburu, San Sebastián, 1979, 1go alea.
- FAJARDO, José Manuel: *La epopeya de los locos. Españoles en la revolución francesa*, Ediciones B, Barcelona, 1992.
- FERNÁNDEZ ALTUNA, Jose Javier: "Pedro Manuel Ugartemendia: XIX. Mendeko arkitekto andoaindarra", *Leyçaur*, 9, 2006, orr. 9-60.
- GARMENDIA AMUTXASTEGI, Gotzon: "Cuando los aires de San Sebastián hacían liberales a sus habitantes: contribución de Julián de Egaña (1786-1864) en la formación del fuerismo liberal", *BEHSS*, nº 41, 2007, orr. 229-414.
- GATES, David: *La ulcera española. Historia de la Guerra de la Independencia*, Cátedra, Madrid, 1987.
- GELLA ITURRIAGA, José: *La Real Armada de 1808*, Real Academia de la Historia, Madrid, 1974.
- GIL NOVALES, Alberto (dir.): *Diccionario biográfico del Trienio Liberal*, Ediciones el Museo Universal, Madrid, 1991.
- GÓMEZ DE ARTECHE, José: *Guerra de la Independencia: historia militar de España de 1808 a 1814*, Imprenta del asilo de huérfanos, 1868-1903, Madrid, XIV volúmenes.
- GUERRERO ACOSTA, José Manuel: *31 de agosto de 1813. Martes de gloria en San Marcial*, Galland books, Valladolid, 2013.
- GUIMERÁ, Agustín-RAMOS, Alberto-BUTRÓN, Gonzalo (coords.): *Trafalgar y el mundo atlántico*, Marcial Pons, Madrid, 2004.
- IRAOLA, Victoriano: "Felipe Dugiols-ri bere talluntzaren lenengo arriya ipintzerakuan", 1901.

- JURETSCHKE, Hans: *Los afrancesados en la Guerra de la Independencia*, Sarpe, Madrid, 1986.
- LABAYEN, Antonio María: *Muñagorri eskribau, bakegille ta fuerozale-El escribano Muñagorri, pacificador y fuerista*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1976.
- LABORDA YNEVA, José: *El proyecto de Arquitectura en la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando. Las pruebas de examen de los aspirantes vascos 1776-1855*, Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2011.
- LARREINA ESCUDERO, Emilio: *La batalla de Vitoria. El fin de la aventura*, Almena, Madrid, 2013.
- LASA ESNAOLA, Fr. José Ignacio: *Jauregui el guerrillero (un pastor guipuzcoano que llegó a mariscal)*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.
- LAURENT, Jacques-VARENNE, Alberic: *Quand la France occupait l'Europe*, Librairie Académique Perrin, Paris, 1979.
- LECUONA, Manuel de: *Lecuona Manuel de Idaz-lan guztiak*, Kardaberaz Bilduma 27, 6. alea, Librería técnica de difusión, Tolosa, 1983.
- LLANOS ARAMBURU, Félix: *El Trienio Liberal en Guipúzcoa (1820-1823). Antecedentes de las Guerras Carlistas en el País Vasco*, Universidad de Deusto, San Sebastián, 1998.
- LÓPEZ-ALEN, Francisco: "Inauguración de la estatua de Dugiols", *Euskal-Erria*, tomo 45, 1901, orr. 244-248.
- LÓPEZ TABAR, Juan: *Los famosos traidores. Los afrancesados durante la crisis del Antiguo Régimen (1808-1833)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2001.
- MANIQUIS, Robert M.-MARTÍ, Oscar R.-PÉREZ, Joseph: *La revolución francesa y el mundo ibérico*, Turner, Madrid, 1989.
- MIRANDA RUBIO, Francisco (coord.): *Guerra, sociedad y política (1808-1814)*, UPNA-Gobierno de Navarra, Pamplona, 2008.
- MURUGARREN, Luis: *1813 San Sebastián incendiada por británicos y portugueses*, Instituto de historia donostiarra dr. Camino, Donostia-San Sebastián, 1993.
- MUTILOA POZA, José María: *La crisis de Guipúzcoa*, CAP, San Sebastián, 1978.
- POLLITZER, Marcel: *Sous la Terreur Blanche*, Aubanel, Paris, 1967.
- RILOVA JERICÓ, Carlos: *Askatasunaren arbola. Lezo Historia Garaikidean (1793-1876)-El árbol de la Libertad. Lezo en la Historia Contemporánea (1793-1876)*, Lezoko Unibertsitateko Udala, Lezo, 2005.
- ÍDEM: "¿De una revolución a otra? San Sebastián en 1789 y en 2011", *BEHSS*, nº 44, 2011, pp. 493-514.
- ÍDEM: "Dueño y señor de su estado". *Un ensayo sobre la persistencia del Feudalismo. El señorío colectivo de la ciudad de Hondarribia (1499-1834)*, Luis de Urantz Kultur Taldea, Irun, 2000.
- ÍDEM: "Vida de un general de las guerras napoleónicas, Gabriel de Mendizabal e Iraeta (1764-1838)", *BEHSS*, nº 45, 2012, orr. 216-223.

- ÍDEM: "José Antonio Muñagorri Otaegui" <http://www.euskomedia.org/aunamendi/83028/143764>.
- ÍDEM: "La penúltima campaña de las guerras napoleónicas (II). La batalla de Vitoria. ¿Una victoria decisiva? (1813-2013)", *diariovasco.com*, *online* errekurtsua.
- ÍDEM: "La úlcera napoleónica. El Ejército del Primer Imperio francés y su financiación. El caso de San Sebastián en el año 1810", *BEHSS*, nº 43, 2010, orr. 529-542.
- ÍDEM: Patria defendida a sangre y fuego. Cómo los vascos descubrieron que eran españoles (1808-1823)", *Hispania Nova*, 3, 2003, *online* errekurtsua.
- ÍDEM: Proyecto "Bayoneta" <http://www.tolosakoudala.net>
- RODRÍGUEZ PÉREZ, Ana Isabel: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, orr. 45-146.
- ROIG DE LLUIS, Luis: "Felipe Dugiols. Su defensa", *Euskal-Erria*, tomo 42, 1900, orr. 272-277, 294-300.
- SÁNCHEZ ARRESEIGOR, Juan José: *Vascos contra Napoleón*, Actas. Madrid, 2010.
- TELLECHEA IDIGORAS, José Ignacio: "Nacionales y realistas: un episodio donostiarra (1827)". *BEHSS*, 18, 1984, orr. 39-114.
- TRUCHUELO GARCÍA, Susana: *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*, Gipuzkoako Foru Aldundia-Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia-San Sebastián, 1997.
- ZZ.AA.: *Azterketa historikoak-Estudios históricos IV*, Zumalakarregi Museoa-Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia-San Sebastián, 1997.
- ZZ.AA.: *Bidebarrieta*, 20 zbk, 2009.
- ZZ.AA.: *Guerra de la Independencia española: últimas campañas en el Norte, 1813-1814*, *Revista de Historia militar*, nº extraordinario 1, 2013.
- ZZ. AA.: *Historia del Pueblo Vasco*, Erein, 1979, volumen 3.
- ZZ.AA.: *1638ko Hondarribiako setio handia-1638: el Gran Asedio de Hondarribia*, Gustav-eko koadernoak, Donostia-San Sebastián 2011.
- VILAR, Pierre: *Hidalgos, amotinados y guerrilleros. Pueblo y poderes en la historia de España*, Crítica, Barcelona, 1982.
- WOOLF, Stuart: *Los pobres en la Europa moderna*, Crítica, Barcelona, 1989.